

# ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2022ko otsailak 25 • 1218. zenbakia

## GERRAK HORRELA KOAK HOBE



## Recalde

Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

Miopia ebakuntza, kataratak  
eta presbiziaren kirurgia



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844 • [www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)



Fase berria salgai. Informa zaitez!

EIBAR ESTAZIÑO ERAIKINA

Eibarko zure geltoki berria

WWW.ESTAZIÑO.COM

Errebal merkataritza-gune bati 70 metrora

Prezioak 115.000€-tik aurrera

GRUPO EIBAR BULEGOA  
ibarkurutze 10 · 20600 EIBAR

943 31 66 11 · 679 032 342  
E: comercial@grupoeibar.com

## Euskararen sozializazioa eta transmisioa

# XII. MINTEGIA



- 08:45:** Akreditazioa eta material banaketa
- 09:00:** Ongietorria
- 09:15:** **"101 ELE proiektua. Euskal Herriko aniztasuna eta euskararen balioa integrazioarako"**. Idoia Etxeberria, Badihardugu euskara elkarteko kidea eta 101 ELE proiektuko arduraduna.
- 09:55:** **"Egunean Behin: jolas bat, hiru datu eta bi gogoeta"**. Josu Azpillaga, CodeSyntax enpresako ingeniaria.
- 10:35:** **"Euskara. Kultura, Transmisioa. Ertzetatik. Igo Bolumena!"**, Naroa Jauregizuria, Ahize AEK-ko Aholkularia
- 11:15:** ATSEDENA
- 11:45:** **"Kantu bat gara"**. Jon Maia, bertsolaria, kultur eragilea eta kulturantzitasunean aritua
- 12:25:** **"Asko edo gutxi erabiltzen ote da euskara dagoen ezagutza-mailarako?"**. Iñaki Lurrebaso, soziologoa eta EHUKo irakaslea.
- 13:45:** Agurra

**Martxoaren 16an**  
**ARMERIA** Eskolako areto nagusian

Aurrez aurre zein streaming bidez jarraitzeko aukera

[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)  
[normalizazioa@etakitto.eus](mailto:normalizazioa@etakitto.eus)  
943 20 09 18

**Izen-ematea ZABALIK**  
**martxoaren 14ra arte**



**Bromarik ez**

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bezperetan ez dut aukera pasatzen utzi nahi joan zen astean argitaratutako gutun bati zerion matxismoan arreta jarri barik. Izan ere, anonimo batek "etxeakoandre" bati egotzi zizkion patriarkatuak rol hori gutxiesteko erabiltzen dituen lelo guztiak.

Halako holakoren laguna omen zen, hura eta bestea han bizi dira... Txutxu-mutxuak, fantasiaz betetako ipuinak inolako ekarpenik ez egiteko; bere azalpena ulertzen dugula ziurtatu behar horrek erakusten du bere buruarengan duen konfiantza eskasa; adarra jotzen ibiltzeko inongo txisparik eta graziarik ez; kontuak kakanahastu eta agerian lagatzeko arrazoi bakarra bere obsesioak dira. Inork horretan ezkutatu beharra zurrumurruak zabaltzeko...

Koldar horrek (beste izenik ez du merezi eta) idatzi zuena etxe-koandreen kontura eginiko burla bat zen, eta lotsa ematen du 2022an halakorik irakurri behar izateak.

Doazela hemen nire esker ona eta errekonozimendua etxeakoandreei, euren gaitasunak eta baloreak direlako gaur egun daukagun gizarte ongizatearen oinarri. Eta horrekin, bromarik ez.

MJ Telleria

"Minskeko Ituna da Ukrainako gatazka konpontzeko tresna diplomatikorik onena. Arazoa zera da, inori ez zaiola gustatzen. AEBek ez dute atsegin, esparru europar hutsa delako. Ukrainari ezta ere, Donbasen hauteskundeak egin beharko litzukeela ezartzen duelako. Errusiak ez du atsegin Putinek nahi duena European segurtasuna AEBekin zuzenean negoziatzea baita. NATOri ez zaio gustatzen, bere funtzio nagusia ekialdera zabaltzeak eragiten dituen arazoak konpontzea delako. Horregatik, kazetariok gatazkaren alderdien propagandaren mezulari hutsak baino gehiago izan beharko genuke".

HIBAI ARBIDE, kazetaria

"Kartelen lehiaketetako makurrena herri bozketak dira. Udalei iruditzen zaie hori parte hartzea dela. Bai zera! Iruzur hutsa dira. Herrikoak irabazten duelako, nahiz eta kaka zahar bat egin. Gutxienik epaimahaiak izango balu erabakimenaren %75 eta herriarrek %25, ados. Gainera, ez du inork parte hartzen, afixak aurkezten ditugunon lagunek soilik. Nahiago dut adituen epaimahaiak, bestela ideiarik ez duenak erabakitzen du. Niri ez dit kalterik egin, sari asko jaso ditut, baina ez nago ados. Gasteizen azkenean kendu zuten bozketarena".

IÑAKI FERNANDEZ, kartelgilea

"Platera eman eta pintxoak bertan biltzera behartzea... Horrela ez dira jaten pintxoak Donostian! Eta pekatuaren gorenena dena: prezio bat kobratzea hemengoei eta beste bat kanpokoei! Horrek guztiak pintxoaren kultura urardotu edo desbirtuatu du. Pintxo bizitza-kalitateari lotuta dagoelako. Sukaldaritza bikain bat, zati txikietan, eta kalitatezko edariak lagunduta, 6 edo 7 euroren truke, munduko beste edonon ez duzu halakorik aurkituko. Sukalde desberdina erakutsiko dizuten lau-bost tokira joatea prezio horretan apartekoa da".

PATXI BERGARA, Pintxoaren Institutuko diruzaina

**Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera**

**ODOLAN.-** Hipertentsioak eragindako gaitz bat. "Odolanakin ogeratu bihar izaten dau, urtian bi edo iru bidar".

**ODOLBAKO / ODOLIK-BAKO.-** Koldarra, adore gabekoa, atzera egiten duena. "Odolik-bako gizajo bat agertu zan gerrako denboran".



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA**  
...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285

**FAXA** 943 20 28 72  
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK**  
elkartea@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**  
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,  
Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

**ADMINISTRAZIOA**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA**  
Maku Oruezabal

**MAKETAZIOA**  
...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**  
Maitane Campos eta  
Malen Illaramendi

**HIZKUNTZA ARDURA**  
Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA**  
Belen Ulazia

**TELEFONOA**  
943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA**  
Ekhi Belar

**BANAKETA-ARDURA**  
Idoia Labado

**TIRADA**  
8.150 ale

**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A**  
...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA**  
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





## Emakumeen borrokari eskainitako erakusketa

>>> Datorren astean, eguen arratsaldean inauguratuko dute “Berdintasunerako bide luzea: Euskadiko emakumeak XX. mendean” izeneko erakusketa Portalean. Eibarko Udalak (Ego Ibarra / Berdintasuna) eta Mario Onaindia Fundazioak antolatu dute erakusketa, Martxoak 8rako egitarauaren barruan. Bertan, Euskadiko historian 1900etik 1985era bitartean emakumeen egoerak izan duen bilakaeraren erreposoa egingo dute, “emakumeek beraien eskubideen alde egindako borroka gogorra kontatzen duten irudi, dokumentu eta objektuen bidez. Benetako berdintasunaren bidean, oraindik amaitu gabe dagoen bidea”. Martxoaren 27ra arte egongo da zabalik, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era. Bisita gidatuak ere eskainiko dituzte.

## Paperezkoa ordezkatzeko duen sinadura biometrikoa ezarri du Udalak, herritarren izapideak errazteko

>>> Udalak sinadura biometrikoa ezarri du Pegoran, Herritarrei Zerbitzua emateko Bulegoan, “herritarrei tramiteak egiten laguntzeko eta haien optimizazioa eta eraginkortasuna hobetzeko”.

Sinadura elektronikoa aurrreratu izenez ere ezagutzen da sinadura biometrikoa eta, azaldu dutenez, “aukera ematen du gailu elektronikoen (tableta) gainean eskuz egindako sinadura-prozesuan pertsonen datu biometrikoak, ezaugarri fisikoak eta besterenezinak, atzemateko. Sinadura biometrikoak paperean eskuz idatzitako sinadura ordeztzen du, eta sinatutako dokumentuaren egiazkotasuna eta osotasuna bermatzen ditu. Dokumentua eta sinatzen duen pertsona sinadurekin lotuta geratzen dira, eta ezin dira manipulatu edota beste dokumentu batzuetan txertatu”.

Sinadura biometrikoa udal izapideetan baino ez da erabilitzen. Oinarritzko datuak egiaztatatu ondoren (interesdunak eta



sinatzailea identifikatzeko dokumentuak), Pegorak herritarrek emandako informazioarekin betetzen du inprimakia eta, hala badagokio, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa digitalizatu eta dokumentuak interesdunari itzultzen dizkio. Eskabidea tablet batean ikusi eta interesdunak pantailan bertan sinatu dezake. Azkenik, Pegorak emailaz bidaltzen dio eskaera interesdunari, erregistratuta eta elektronikoki sinatuta.

## Txernobylgo haurrak udan hartzeko familiak behar dira

>>> Chernobilen Lagunak GKEk udan haur bat etxean hartzeko prest dauden familiak behar ditu. Egitasmoan parte hartzen duten haurrak 7 eta 17 urte bitartekoak dira, eta Txernobylgo hondamendi nuklearrak kaltetutako eremuan bizi dira. Azaldu dutenez, “haien familiek ez dute baliabide ekonomiko propiorik ingurune horretatik aldentzeko, batez ere udan, tenperatura altuen ondorioz erradioaktibitatea kutsadura-maila gorenera iristen denean. Adingabeak kutsatutako eremutik kanpo igarotzen duen hilabete bakoitzeko, haien bizi-itxaropena 12 eta 18 hilabete bitartean handitzen da,



Osasunaren Mundu Erakundeak egiaztatu duenez”. Martxoaren 15era arte eman daiteke izena. Informazio gehiago nahi izanez gero, 689 586 277 telefono zenbakira deitu edo chernobilenlagunak.org helbidean begiratu daiteke.

## Gizarte Larrialdietarako 666 laguntza-eskaera onetsi ziren iaz

>>> Udaleko Gizartekintza Sailak Larrialdietarako Laguntzen (GLL) 666 eskaera onetsi zituen 2021ean, 586.963 euro horretarako bideratuta. Hortik 525.526 euro Eusko Jaurlaritzak eman ditu. Iaz emandako GLLen erdiak etxebizitza alokatzeko gastuetarako bideratu ziren; gainontzekoak etxebizitza

tza mantentzeko gastuetarako, energia-fakturetarako eta amortizazio-interesetarako erabili ziren, gehienbat. Pandemiaren ondorioz, 2021ean emandako laguntzek aurreko urtean emandakoak gainditu zituzten: 2019an 600 laguntza eman ziren eta gastua 555.817 eurokoa izan zen.





## Banketxeei buruzko mozioa aurkeztuko dute pentsiodunek

>>> Beste udalerrri askotan bezala, Eibarko Pentsiodunen Batzarrak mozioa aurkeztuko du Eibarko Udalean, "ahalik eta azkarren eztabaidatu eta onar dadin udalbatzarrean, adinekook eta pentsiodunok zerbitzu horien murrizketen eta digitalizazioaren ondoren, banku-zerbitzuetara jotzeko dugun arazo larria dela eta". Udalbatzari onartzeko eskatuko dizkiotenen artean, besteak beste, honako hauek daude: Eibarren dauden banketxe guztiei leihatila bat zabal dezatela eskatzea, "herritar guztiei, eta

65 urtetik gorakoei lehentasunez, aurrez aurreko zerbitzua bermatzeko"; lokaletara sartzeko murrizketak dauden bitartean eta/edo pertsonen arteko urruntze-neurriak gorde behar diren bitartean, sukurtsal bakoitzean ahalik eta edukiera handieneko itxarongela bat gaitzea; 65 urtetik gorakoei, hala eskatzen badute, doako zordunketa-txartelak ematea, inolako komisiorik gabe; eta gehien duenari gehiago kobratzea, eta kudeaketaren kostua zerbitzu horretaz gehien baliatzen direnei egoztea.

## Shot izenarekin sinatzen duen grafitigilea harrapatu dute

>>> Arragueta zeharran (tren geltokira doan pasabidean) grafiti bat egiten ari zen gizonzkoa harrapatu eta identifikatu du Udaltzaingoak. Shot gaitzizenarekin sinatzen duen grafitigilea hormetan margotzen behin baino gehiagotan harrapatu dutela jakinarazi du Udalak: "Eguen gauean, 12ak pasata, bizilagun batek Udaltzaingora deitu zuen, Arraguetako igarobidean pertsona bat grafiti bat egiten ari zela ohartarazteko. Hainbat agente bertaratu ziren esandako lekura eta hantxe zegoen artean ere kaptuxa batekin. Identifikatu

ondoren, hamar bat pintura-espriak konfiskatu zizkioten". Identifikatu ondoren, Udalak zigor ekonomiko bat ezartzea dakarren zehapen-espeditentea ireki dio eta, aldi berean, errekerimendua egingo zaio pintatutako pareta garbitzeko kostuak ordaintzeko neurriak hartzeko. Azalduetakoaren arabera, "persona horrek egindako arau-haustea larritzat joko da, behin eta berriz egin delako". Udal aurrekontuetan 60.000 euro bideratzen dira urtero, batez beste, Eibarko kaletako pintadak garbitzeko eta kartelak kentzeko.



**PUBLI RESA**  
objeto publicitario

merchandising  
serigrafia  
lanerako erropa

www.publiresa.com  
publiresa@publiresa.com  
943 701 497 / 615 799 419  
Armagin, 3-5 behea

**FUNEUSKADI**  
Grupo Asistia

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeraskadi

TANATORIO EIBAR  
TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27  
Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)  
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20  
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

**ek!**  
...eta kitto!  
Euskara Elkarteen astekaria

Jarraitu gaitzazu  
**SARE SOZIALETAN**

f t y i



## Iñaki Larrañaga artista eibartarraren omenezko bideoa

>>> Eibarko Udal Artxiboak Iñaki Larrañaga artista eibartarraren omenezko bideoa igodu bere Youtube kanalera. Iñaki Larrañaga Iglesias Eibarren jaio zen, 1931n, baina gerraren ondorioz Elgoibarrera joan zen, oso umea zela, eta han igarozuen bere bizitzaren zati handi bat. Besteak beste pintura eta eskultura landu dituen artista honek lehen bakarkako erakusketa orduko Sociedad Cultural Recreativa Arrateren aretoan egin zuen. Haren ondoren, beste batzuk etorri ziren: Donostia,

Lizarra, Cuenca, Oiñati, Bergara, Getaria, Tarazona, Zarautz, Eibar, Deba...

Fernando Beorlegi, Daniel Txopitea eta Marino Plazarekin batera, Gorutz taldearen sortzailea ere bada. Artisten arteko adierazpen eta laguntza-modu berriak ikertzeko sortu zen talde horren lehen erakusketa 1974ko otsailaren 9an inauguratu zen, Eibarko Caja Laboralean. Geroago Elgoibar, Gernika, Irun, Gasteiz eta Iruñean erakutsiko zituzten beraien artelanak.



## Korrikako materiala salduko dute bihar goizean Untzagan

>>> AEK Euskaltegikoek Korrikako mahaia ipiniko dute bihar Untzagako arkupeetan (Guridi tabernaren ondoan), goizeko 11:00etatik 14:00etara bitartean. Nahi duenak bertan izango du Korrikako arropa (haur

eta helduendako kamisetak, osagarriak...), Korrikako petoak eta txapak erosteko aukera. Horrez gain, Korrika Laguntzaile egiteko aukera ere egongo da (12 euroren truke, Korrikako pina eta txartela opari).

## Zaintzaileen profesionaltasun ziurtagiriari buruzko saioa

>>> Mendeko pertsonen gizarte-erakundeetan Gizarte eta Osasun arreta emateko Profesionaltasun-ziurtagiriari buruzko informazio saioa egingo da eguaztenean, Portaleko 4. solairuan. Ordubeteko iraupena izango du saioak eta bi talde osatzea dago aurreikusita: lehengoa, 17:00etatik 18:00ora eta, bigarrena, 18:00etatik 19:00etara. Informazio gehiago nahi izanez gero, formacionbidezvide@gmail.com helbidera idatzi daiteke. Saioa Bidez Bide elkarteak eta Eibarko Udalak antolatuko dute.



## Domekan omenduko dute Felix Elkoroiribe

>>> Domeka goizean, 11:30ean egingo diote omenaldia Felix Elkoroiriberi, Coliseo antzokian. Ekitaldian, besteak beste, Trio Medianoche taldeak eta Untzagako jubilatutako etxeko gitarra taldeak eta abesbatzak hartuko dute parte eta sarrera doan izango da, gonbidapenarekin (leihatilan bertan eska daiteke). Untzagako jubilatuek horrela eskertu nahi dizkiote "Eibarko hiriaren zerbitzura



bitzita oso bat eta Untzaga Jubilatuen Etxeko presidentea gisa egindako ibilbide luzea".

## Familia eta buru osasunari buruzko hitzaldia Agifesen

>>> Buru osasun arazoei aurre egiteko garaian familiak betetzen duen paperaren garrantziaz berba egiteko hitzaldia antolatuko du Agifesek (Buru Osasun Arazoa duten Pertsonen eta Senideen Gipuzkoako Elkarteak) Eibarren.

Itxasne Gallastegi Agifeseko psikologoa emango du "Familia eta buru osasuna. Familiak errekuperazio-prozesuan duen papera" izenburuko hitzaldia, martitzenean, 18:00etatik au-



rera, Agifesen lokalean (Urki-zu, 9). Gaztelaniaz izango da hitzaldia eta eserleku kopuru mugatua egongo da.



**ARATOSTIETAKO**



**GIRORIK ONENA!!!**

**HEMEN DUZU ZURE TXOKOA**

**TXOKO**

**Bikain pasatuko dugu!!!**

*Ederra plana!!!*



**AMETSA**

**54**

*Hemengo gure jaia ZURETZAT DELAKO*

**SOKOA**

birjiñape, 1 behea  
tel. 943 20 71 00

**SOKOA**

EIBAR-ONDARRU

**Su Beroa**

Bista Eder, 11  
Tel. 943 47 77 79  
suberoataberna@gmail.com

**KATU**

k a l e

**BAR EZDOK BERRIA**

Toribio Etxebarria, 18

**CHIC**

80.eko CHIC diskoaren erritmora

**BOSCA**

*Une zoragarriak bizitzeko parada*

**GORA**

**GURIDI**

**ARATOSTIAK!!!**



Iosu Arraiz elgoibartarrak bi urte eta erdi daramatza Debabarreneko Mankomunitateko presidente lanetan. UBANE MADERA

<<< **IOSU ARRAIZ ARANBURU** • Debabarreneko Mankomunitateko presidentea >>>

## “Erronka nagusia da errefus kopurua gutxitzea”

Iosu Arraiz Aranburu jeltzalea (Elgoibar, 1991) 2019ko uztailaren 26tik da Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko presidentea. Arcadio Benitez sozialistaren lekua hartu zuen Arraizek.

Ubane Madera (DKT)

**Mankomunitatearen 15 milioi euroko aurrekontutik 9 milioi euro pasa bideratuko dira hiri-hondakinen bilketara. Zelan banatzen da herrika?**

Mankomunitateak eskaintzen duen zerbitzua komuna da, ez da herrien arabera bereizten. 9 milioi euro horien barruan sartzen dira, besteak beste, inbertsioak. 2019tik 1,3 milioi euro bideratzen dira inbertsioetara, kale garbiketara, administrazioa... Hondakin bilketarekin lotuta, aurtengo inbertsioak izango dira baliabideak berritzeko,

iaz moduan: kamioiak, konpostagailuak, edukiontziak...

**Lurrazpiko edukiontziak erretiratzeko ari zarete, ezta?**

Bai, iaz ordezkatu genituen lurrazpiko 52 edukiontzi lurrazalekoengatik. Egoera ikusita eta herritarrei sortzen zizkieten arazoak kontuan hartuta erabaki zen aldatzea; gainera, mantentze-kostu altua dute. Bestalde, orain, lurrazalekoengatik aldatu ez diren lurpeko edukiontziak berritzen ari gara, egoera txarrean zeudenak eta hainbat

arrazoierengatik lurrazalekoengatik aldatu ezin izan direnak. Elgoibarren hasi gara lanean eta berrituko ditugu Ermuan, Eibarren eta Mutrikun, guztira, 65 edukiontzi, urtea amaitu aurretik.

**Bilketa selektiboaren datuen arabera, 2017tik (%48,88) 2018ra (%53,55) eman zen gaikako bilketan igoera nabarmenena; harrezkero, gutxiago igo da gaikako bilketa edo bere horretan mantendu da. Zein da helburua?**

Igotzen joan da, batik bat sisteman berrikuntzak sartu izan direnean, adibidez, organikoaren bilketa, errefusarena... Hala ere, baina gero egonkortu egin dira, hau da sirimiri bat bezala; jendearen ohitura aldaketetan eragitea ez da batere erraza, politikoki doa bustitzen eta ohitura berriak barneratzen. Hala ere, gure helburua da hazten segitzea. Ari gara sistema aztertzen, bilketa hobetzeko, herritarrei erraztasunak emateko eta eraginkorrago bilakatzeko.



Dena den, oro har, datuek hobera egin dute eskualdeko herriruz guztietan. Gaikako bilketan %55 inguruan gaude eskualde mailan.

**Zein kopuru nahi duzue lortu?**  
2020rako ezarrita zegoen gaikako %40 batzea, hori gaingaitu egiten dugu. 2025erako %50a dago ezarrita eta hori ere bete dugu. 2030erako dugun helburua da %70erainoko gaikako bilketa lortzea.

**Zer da gehien kostatzen ari dena?**

Ontzi arinak batzea. Sortutako hondakinen artetik ontzi kopurua zenbatekoa den kontuan hartuta, gutxi batzen dugu. Azkenean ia dena da plastikoa. Berriz, da errefusaren kopurua txikitzea.

**Debagoienarekin konparatuz, adibidez, ia 15 puntu beherago dago Debabarrena (Debagoieneko gaikako bilketa da %74,54). Aztertu da arrazoia?**

Eskualde bakoitzaren iragana desberdina da. Bakoitzak bere garapena egin du hondakinen bilketan. Gipuzkoan daude batzuk guk baino gehiago biltzen dutenak eta beste batzuk guk baino gutxiago. Guk gure bidea dugu eta nahi dugu hor sakondu, herritarren, enpresen eta gizarteko beste kolektibo batzuen laguntzarekin. Nik uste dut sisteman baino eragin behar dugula ohituretan.

**Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, baxua da gaikako bilketa; berreraikitze-ko ohitura ere ez dago horren barneratuta... Kontzientziazio falta dago, akaso?**

Iaz egin genuen kanpaina hondakin gutxiago sortzeko, berreraikitze... Uste dut bogan dagoela bigarren eskuko produktuak erostea, adibidez, Internet bidez. Herrietan ere egiten dira bigarren eskuko azoka gero eta gehiago. Nik esango nuke orain arte bigarren eskuko arroparik -familiaratik kanpokorik- ez genuela ia nahi eta orain gero eta gehia-

## “Gogoratu birziklatu egin behar dela eta ekonomikoki eta ingurumenarentzat ezinbestekoa dela gutxiago sortzea eta birziklatzea”



## “2030erako dugun helburua da %70erainoko gaikako bilketa lortzea”

go erabiltzen edo erosten dela. Uste dut badagoela aldatzea. Konpondu, berreraiki, bigarren eskukoak saldu egin behar da. Ez da bakarrik gaika bildu. Gero eta gutxiago sortu, orduan eta gutxiago izango dugu gaika biltzeko. Gaika biltzea azken alternatiba da.

**Enpresen hondakinak ere biltzen dituzue. Nahikoa birziklatzen da?**

Industrialdeetan batzen dugu egurra, papera, ontzi arinak eta errefusa, hiriko hondakinekin pareka daitezkeenak. Orain industrialdeetara bisitak egiten ari gara, gogorarazteko ezin dutela jarduera industrialarekin lotura duten hondakinak errefusera bota, adibidez, txirbilak, tailer mekanikoetako olio poteak... Horiek ez dira hiri hondakinak, horiek dira euren jarduera ekonomikoan sortzen dituzten hondakinak eta bakoitzak bere tratamendua behar

du. Hori ez da gure arduren barruan sartzen.

**Garbiguneetara zer bota daiteke?**

Aparailu elektroniko eta elektrikoak hondakinak, pintura latak, olio poteak... Hau da, partikularrek etxeetan sortzen dituzten hondakin arrisurtsuak. Gremio txikiek ere erabil ditzakete garbiguneak, adibidez, margolari autonomo batek. Baina mugak daude: 250 kilo asteko, eta, obra hondakina bada -amiantorik gabekoa beti-, 500 kilo astero. Lau garbigune daude: Elgoibarren, Ermuan, Eibarren eta Mutrikun. Egoera desberdinetan daude. Eibarko eta Elgoibarko dira berrienak eta handienak. Ermukoaren kopurua ez da aproposena eta tamaina aldetik ez du horrenbeste erraztasun. Hori hobetu beharra dago. Mutrikukoa, berriz, ondo dago, erdibidean.

**Urruzuno itxi zen. Nora eramaten dira hara zihoazen hondakinak?**

2007an itxi zen. Orain zigilatzen ari gara ingurunea, esparrua berreskuratzeko garrantia guztiekin. Kapa begetala eta belarra landatuko zaizkio azalean. Urruzunora ez dira inoiz eramaten hiri hondakinak, hondakin inerteak baizik. Hara eramaten ziren bolumen handiko hondakinak, gaur egun, Zubietara eramaten dira, egurra Kanpanzarrera eta plastikoa Aizarnazabalera. Osterantzean, hondakinei dagokionez, errefusajoa da Zubietako ingurumen zentrori, organikoaren zati bat Epeleko konpost-plantara, beste bat Zubietako bio-metanizazio plantara, ontzi arinak Legazpiko planta batera, papera eta kartoia Zornotzako Saica Natur enpresara eta beira Ecovidriora. Bakoitzak bere trataera du, ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

**Pandemiarekin kendu egin zen edukiontzien txip sistema. Horrek eragin bat izan du bilketan?**

Mantendu egin dira datuak. Ez dugu ikusi okerrera egin dutenik. Beraz, orain gaude aztertzen zer egin, ea merezi duen txipa ipintzerik edo frakzio jakin baten ipintzea...

**Bi urte bete berri dira Zaldibarren hondamendia gertatu zenetik; zelan ikusten duzue egoera?**

Gure lan errotik kanpo geratzen da Zaldibar. Dakiten pertsonak edo adituek hori argitzea nahiko genuke. Guri dagokigunez, gure hondakinak bideratuta ditugu eta hondakin horietatik ahalik eta gehien aprobetxatzea da asmoa. Helburua da hondakindegietara ahalik eta gutxien botatzea.

**Besterik nahi baduzu gaineratu...**

Gogoraraztea birziklatu egin behar dela eta ekonomikoki eta ingurumenarentzat ezinbestekoa dela gutxiago sortzea eta birziklatzea.



# Zeharkatzen gaituen istorioa

Amets Arzallus Antia bertsolari, idazle eta kazetariak 'Miñan' liburuaren inguruan jardun zuen joan den asteko egunean Armeria Eskolan EPAK gonbidatuta. Ametsek Ibrahim Balderekin idatzitako nobela da eta Ibrahimaren bizitzaren kronika egiten dute bertan. Egueneko saioan, liburuko pasarte batzuk kontatzeaz gain, afrikarrak bizi zutenaren eta migrazioaren inguruan berba egiteko aukera izan zuen publikoaren galderak erantzunez.

**A** mets Arzallusek ez du bere burua idazle moduan ikusten eta ez zuen liburu bat idazteko asmorik. "Hendaiarra naiz eta euskaldun baten begietatik begiratu diot beti mugari. Azken urteetara arte ez nion euskalduna ez den pertsona baten begietatik begiratu eta, zorigaitzez, begirada hori aldatzen ikasi dugu, azken bizpahiru urtetan muga horren inguruan beste errealitate bat nabarmen azaldu delako", hasi zen kontatzen egueneko hitzaldian.

Migrazioaren errealitatea da hori, batez ere Afrikatik datorrena. "Seguraski, migrazioaren haizea beti egon izan da muga ertzetan, baina haize hori haragi eta gorputz pixka bat hartzen hasi zen 2018an", Ametsen berbetan. "Jende asko, iritsi berriak, gazteak, are gazteagoak batzuk, haurrak, denetatik, eta polizia frantsesaren presentzia gero eta nabarmenagoa eta gogorragoa, gauregunera arte", gehitu zuen.

## Irungo Harrera Sarea

Egoera horri erantzuna eman asmoz, Irungo Harrera Sarea martxan jarri zen boluntario talde batekin. Harrera minimo bat, tratu humanoa eta empatia pixka bat eskaini nahi zieten migratzaileei. Baita gauza praktikoak ere: jantziak, jana, Gurutze Gorriko norabidea erakutsi, muga zeharkatzeko garraio aukerak azaldu...

Ametsen ustez edozein migranteren istorioa ez da samurra. "Ez da erraza lagun eta etxekoen aurrean kontatzea, eta are zailagoa polizia baten aurrean azaltzea eta auskalo zein hizkuntzatan", bere iritziz.

2018an milaka pertsona pasa ziren Irungo Harrera saretik eta asiloa eskatzeko eskubidea zutela azaldu zieten denei. 20 lagun gelditu ziren eta polizia komisaldegian euren historia kontatu behar izan zuten babes eskaera egiteko. "Ibrahim zen horietako bat eta elkarrizketa egiten hasi nintzaion, bere historia idatzita komisaldegiko

## BIDEOA IKUSTEKO



ahozko kontakizun horretara eramateko, laguntza bezala", azaldu zuen idazleak.

Ametsen berbetan, "liburuan agertzen den istorioa ez da orain dela hiru urte iritsi eta gelditutako pertsona baten istorioa, egunero-egunero gure herria zeharkatzen duen istorioa da. Milaka zango eta milaka begi, egunero-egunero batez ere joanean dabiltzanak eta tarteka poliziak atzera ekartzen dituenak".

## Ama hizkuntzaren garrantzia

Ibrahim Balde Gineakoa da. Nzerekorren bizi zen, hiriburu-eretik 300 kilometro ingurura, eta hiru edo lau urtez kamioi batean aprendiz ibili zen. "Aste batean Konakrytik Nzerekora joaten ziren, eta hurrengo astean Konakryra itzuli. Egun batean amak deitu zuen arte: anaia txikia falta zen etxean. Eta haren bila abiatu zen. Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileekin topo egin; egarria, gosea, mina eza-gutu. Afrikatik Europarako bidea", kontatzen du Ametsek. "Mediterraneo zeharkatzen dutenak deshumanizatzea ezinbestekoa da haien heriotzen, kanporatzen, ilegalizatutako bizitzen gaineko ezaxola zabaltzeko. Baina bizitza horietako bakoitza bakarra da eta, beraz, unibertsa. Eta kontatzeak hori azpimarratzen du", gehitzen du.

Horrela, bizitza bakoitza bakarra delako, Ibrahim bere burua aurkezten du liburua-





Armeria Eskolan bildu zen publikoak Ibrahima Balderen istorioa ezagutzeko aukera izan zuen Amets Arzallusen eskutik. EKHI BELAR



Amets Arzallusek 'Miñan' liburuaren zenbait pasarte kontatu zituen Armeria Eskolan eskaini zuen hitzaldian. EKHI BELAR

ren hasieran. Fula etniakoa da eta fularra da bere hizkuntza, baina malinkez ere hitz egin dezake eta susuz ere moldatzen da. "Frantsesez, ordea, ez dakit zenbat hitz dakidan", dio liburuko pasarte batean, Amets Armeria Eskolan kontatu zuen bezala.

Ibrahimaren istorioa aurkezteko orduan Ametsentzat garrantzitsua zen, kokapen geografikoa egiteaz gain, kokapen kulturala eta linguistikoa egitea munduaren eta historia-aren aurrean. "Afrikaren oihua

jasotzen badugu eta Afrikatik datorren pertsona batekin komunikatzen banaiz, frantsesaren bidetik izango da seguraski, baina frantsesa ez da nire ama hizkuntza eta ezta migrante horrena ere. Gure hizkuntza-aren kontzientziatik, euskararen historiatik eta begietatik, Afrikako errealitate etniko-linguistikoa zabalago eta beste musika batez erakusteko interesa eta gogoia nuen", azaldu zuen bertsolariak.

Ametsen ustez, "pertsona batek bere hizkuntzan berba

## Amets Arzallusek eta Ibrahima Baldek idatzitako 'Miñan' liburuaren izan zuten mintzagai Armeria Eskolan

### Anaia txikia

Miñan berbak anaia edo arreba txikia esan nahi du fula hizkuntzan, eta, aipatu bezala, bere anaia txikia falta zelako hasi zuen Ibrahimak Europarainoko bidea. Bide horretan Ismail txikia izan zuen lagun. "Sei hilabete egin genituen elkarrekin. Bereizi egin ginen eta geroztik ez dut berriz ikusi, baina oraindik hankak handitzen zaizkit eta Ismail txikiarekin oroitzen naiz. Bat, masajea eman zidalako, beheara eta gora, hanka bietan, hiru egunez. Bi, berriz oinetakoak jantzi eta ibiltzen hasi nintzelako, poliki-poliki, lehenik hanka bat eta gero bestea, minik gabe. Eta hiru, lana non aurki zitekeen erakutsi zidalako. Hori dena egin zuen Ismail txikiak nire alde", gogoratzen du Ibrahimak liburuan. Egoera zailenetan ere, elkartasuna nagusi.

Eguenean Ametssek irakurritako pasarte bakoitzak migranteen errealitatea gehiago ulertzeko balio izan zuen, zertxobait gutxienez. Ez ikusiarena egiten badugu ere, zeharkatzen gaituzten bizitzak dira, ez dira haize boladak, hezur eta haragitzakoak dira. ■

egiten badu, labur baldin bada ere, beste kokapen psikologiko bat hartzen du eta beste babes bat sentitzen du hasieratik. Beraz, migratzaileak gure hizkuntzara zabaltzeko bideak aurkitu beharko genituela pentsatzen dut, baina baita haien hizkuntzeekin konektatzeko bideak topatzea ere, ez bakarrik frantsesez. Hau da, sinbolikoki bada ere, pertsona horiei euren kulturetatik eta begietatik begiratzea". "Hizkuntza etxea da edozeinentzat", gehitu zuen.

**O**raingo kontuek aurreikusten dituzten egin beharreko proiektuei dagokienez, aipatzekoak dira Ubitxa eta San Kristobal kaleak lotuko dituzten igogailuak eta Mekola eta Arrate-Bide kaleak guztiz irisgarri bihurtu dituzten jasogailuak; aipatutako bi lan horiek 2,6 milioi euroko inbertsioa eskatuko dute. Horiez gain, onartutako aurrekontuetan irisgarritasunerako eta hiri-inguruneen hobekuntzarako beste hainbat ekimen jasotzen dira, birsorkuntza urbanistikorako beste operazioetarako partidekin batera, eta ezin da ahaztu Eibarko ikastetxeetan egiteko dauden hobekuntzalanen kopurua. Aurreikusita dagoenez, Urkizuko ikastetxeko gimnasioa berriztuko da, hango fatxada berritzen jarraitzeaz gain; San Andres eskolako patioan obrak egingo dira, frontoian zein harmailetan; Arrateko Andra Mariko komunak berriztuko dira; eta, azkenik, Orbea haurreskolako emergentziatzako eskailerak egingo dira.

Aurten dira hastekoak baita Estaziñotik Azitaineraino trenbidea estaliko duen pasealekuaren lanak ere, asmoak auzokideen aurkako erantzuna jaso badu ere. Proiektu hori finantzatzeko %90 Europako funtsetatik etorriko bada ere, beste %10 Eusko Jaurlaritzak eta Eibarko Udalak hartuko dute euren gain, bakoitzak horren erdia.

#### **Ingurumenerako diru gehiago**

Udal arloetara bideratutako diru-partidei dagokienez, azpimarratzekoa da Ingurumenerako orain izango duena (iazko 175.000 eurotik oraingoko 663.590era egingo delako jauzi), eta euskera bultzatzeko partida ere 100.000 eurotan handituko da. Babes sozialerako bideratutako aurrekontuetan, bestalde, udal arlo horretako programetan inbertituko den kopuruak 4,25 milioi euroak gaituko ditu. Diru guzti hori baliabide gutxien dituzten familia eta kolektiboentzat izango da: hor

# Eibarko Udalak 44,7 milioi euroko partida kudeatuko du aurten

Gure herriko korporazioak hilaren 17an telematikoki egingako ezohiko Batzarrean 44.754.450 euroko aurrekontua onartu zuen aurtengo jardunetarako, aurrekoarekin alderatuta sei milioi euro handiagokoa. Kontuak aurrera atera ziren PSE-EEko (9) eta EAJ-PNVko (6) zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bilduko (5) eta Podemos - Ahal Duguko (1) kontrakoekin. Inbertsioetarako 6.683.682 euro bideratuko dira, arlo horretako iazko aurrekontuetarako partidarekin (4.071.995) parekatuz %64 gehiago.



Aste honetan bertan hainbat asfaltatze-lan egin dira, Urkizun kasurako.

sartzen dira RGI jasotzen dutenak, lan barik daudenak eta baliabide eskasekin konpondu behar diren pentsionistak, beste batzuen artean. Aldi berean, Berdintasunerako aurrekontua ere igo da zertxobait, 40.000 inguru gehiagotan.

Udalak beste 3.239.104 euro bideratuko ditu Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza arloan antolatuko diren programentzat. Hor ere badira hainbat berrikuntza: tartean daude enpresa-proiektu berriak garatzeko dirulaguntzak, Tekniker-en abian jarriko den inkubagailu teknologikoa edota hutsik dauden merkatal lokalak mugiarazteko subentzioak. Arlo horrekin lotu daiteke orain dela egun batzuk Eusko Jaurlaritzak 16 milioi euro inbertituko dituela Eri-sonoko industrialdea edo poligonoa handitzeko, Sprilurren jabetzako lurretan, jakinarazitako albistea.

#### **Sarrerak eta irteerak**

Pandemiaren eraginez aurreikusita zeuden hainbat proiektu atzeratu egin dira azken bi urteotan eta orain berriro ekiteko asmoa dago. Diputaziotik ere udal finantziatorako Giza Funtsetatik 21.257.411 euro etorriko dira gurera, eta horiek ondo islatu dira onartutako aurrekontuetan. Jaso beharreko kopuru hori, iazkoarekin alderatuz, 2.706.141 eurotan handitu da. Horrelako datuek ahalbidetu dute, udal ordezkariak diotenez, "zazpigarrenez jarraian udal ordenantza fiskalak edo zergak izozteko ahalmena izatea". Aipatutako Foru Funtzen garrantzia udaletako aurrekontuetan nabarmena da. Izan ere, ekitaldi honetarako aurreikusitako diru-sarreraren %50 baino handiagoa da kopuru hori.

Sarreraren arloan, Transferentzia Arrunten partidak hartzen du pisu gehien, ia 24 milioi euroko kopuruarekin. Atzetik jarraitzen dizkiote, Finantza Pasiboek eta Zuzeneko Zergek (8 milioi eurotik gora kasu bietan) eta Tasak eta Bestelakoak, ia 3 milioi euroekin.





Ubitxa eta San Kristobal kaleak lotuko dituen igogailuak aurtengo inbertsioen partida garrantzitsua hartuko du.

SARRERAK		IRTEERAK	
ZUZENKO ZERGAZ	8.006.100,00	PERTSONAL GASTUAK	14.868.488,96
ZEHARKAKO ZERGAZ	500.000,00	ONDASUNAK/ZERBITZUAK	15.115.523,02
TASAK ETA BESTELAKOAK	2.912.784,00	FINANTZA GASTUAK	45.100,00
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	23.857.756,36	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	5.928.927,60
ONDARE SARRERAK	157.208,00	KREDITU GLOBALA ETA BESTE	00,00
INBERTSIO ERREALEN BESTER.	500.000,00	INBERTSIO ERREALAK	7.427.021,11
KAPITAL TRANSFERENTZIAK	320.581,65	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	604.250,00
FINANTZA AKTIBOAK	36.800,00	FINANTZA AKTIBOAK	45.200,00
FINANTZA PASIBOAK	8.463.280,68	FINANTZA PASIBOAK	720.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>44.754.510,69</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>44.754.510,69</b>

## Aurreko astean onartutako aurrekontuek 6,6 milioi euro bideratzen dituzte inbertsioetarako

Irteeren arloan bi partida nabarmen dira: Ondasunak eta Zerbitzuak daude alde batetik, 15 milioi eurotik gorako kopuruarekin, eta Pertsonal Gastuak jarraian, kasu horretan ia 15 milioi eurora heltzeko zorian. Inbertsio Errealen kasuan, 7 milioi eurotik gorako kopuruarekin, gora egiten du azken urteekiko. Eta Transferentzia

Arrunten atalak ere pisu handia du, ia 6 milioi euroko kopuruarekin. Alkatetzaren Memorian diotenez, "pandemiak baldintzatutako testuinguruari erantzun nahi izan zaio".

**Negoiazioa udal-taldeekin**  
Eibarko EAJ-PNV-k 2.328.000 euroko zuzenketa partzialak aurkeztu zituen hasiera batean

eta, negoziazio-prozesu sakonaren ondoren, 2022ko ekitaldirako aurrekontuen zirriborroa onartuko zela adostu zen gobernu-talde sozialistarekin, azken hauek hasieran aurkeztutako aurrekontuen zirriborroari jeltzaleen ekarpenak gehituz.

Eibarko EH Bilduk, bestalde, osoko zuzenketa aurkeztu zuen, bai eta 3.412.000 euroko osoko

zuzenketa partzialak ere. Alde biak ahalegindu arren, ezinezkoa izan zen bi taldeen arteko akordioa lortzea. Elkarrekin Podemos-ek, bestalde, 623.000 euroko zuzenketa partzialak aurkeztu zituen, garbiketa-zerbitzua Udalean txertatzeko eskaera egiteaz gain. Kasu horretan ere ezinezkoa izan zen akordiorik lortzea.

# IÑAKI GOIKOETXEA IZETA

5. URTEURRENA: 2017-02-22

*"Maittasunak zugana narama, oroitzapenetan alkartzen jarraituko dut"*

**ETXEKUAK**





Iker Galartza Lehendakariaren azalean sartuko da eta Zuhaitz Gurrutxagak, ostera, bere psikologoarena egiten du. TXALO

<<< IKER GALARTZA • Aktorea >>>

## “Zirkoak saltzeko, erakusteko eta jendea erakartzeko beharra du, politikak bezala”

Batzuentzat sinisteko zaila izango bada ere, politikariek sentimenduak dituzte. Robot itxurako esatari horien atzean pertsonak daude eta hori adierazten saiatzen da Iker Galartza ‘Lehendakari gaia’ antzezlanean. Umorea ez da faltako, baina barre eginez gai serioak lantzeko balio izango du. Txalo antzerki-taldearen ekoizpena hilaren 28an egongo da ikusgai, 19:00etan, Coliseo antzokian.

**Sentimenduak dituen politikari baten azalean sartzen zara antzezlanean. Lan zaila izan da?**

Lehendakariaren papera egiten dut, baina enpresa handi baten burua edo ardura handia duen pertsona bat izan daiteke. Boterea eta eragina duen eta gizartea eralda dezakeen pertsona da, baina antzezlanean ikusten dena da beste edozein

pertsona modukoa dela. Hau da, besteek bezala ipurdian zuloa daukala.

**Umorea erabiltzen duzue horrelako pertsonak izan ditzaketan arazoengatik inguruan jarduteko. Zer lortzen duzue horrela?**

Horrelako pertsonak humanizatzea. Umoreak bizitasuna ematen dio pertsonaiari. Umorearen bitartez mota horretako pertsonak ulertzen saiatzen gara. Antzezlanak gure buruaz barre egiteko gai izan behar gara erakusten du. Obra ikusi duen jende askok zera esan dit: “Nolako egiak esaten dituzuen!”. Beste askok, ostera: “Zeinen ondo pasa dugun!”. Beraz, antzezlanaren mezuaren atzean ikusi nahi duenak, ikusiko du; baina, bestetik, denbo-

ra atsegina pasa eta barre egin nahi duenak ere horretarako aukera izango du.

**Batzuetan beste pertsonen azalean jartzea falta zaigu?**

Bai. “Orain hau etorriko da eta berak esango digu zer egin dezakegun eta zer ez? Tira tira”, esan ohi dugu. Antzezlanean, adibidez, Lehendakaria psikiatrarenera doa eta ez dakit



nora bidaliko duela esaten dio psikiarari, berak edozer egin balezake bezala. Gero, emazteak Lehendakariari deitzen dio eta inbestidura-hitzaldirako soineko gorria jantzi nahi duela esaten dio. Lehendakariak ezetz erantzuten du, itxura transbertsala eman behar duela, aholkulariek horrela diotela eta abar esanez. Azkenean, emazteak soineko gorria jantzen du, horrela nahi duelako. Hau da, herri bat gobernatu dezake, baina beste pertsona batzuk daude bere gainetik, berak ez du dena erabakitzen.

### **Beraz, zuk diozuna, azken neurrian pertsonak direla.**

Politikariak familia dute eta gurasoak, adibidez, lan arruntetan ibili ahal izan dira (okinak, dendariak, tailerreko langileak...). Eurek pentsatu dezakete politikari guztiak alferrak direla, politikan sartzen direnak beste ezertarako balio ez dutela. Hau da, lana ez den beste guztia denbora alferrik galtzea dela. Gure pertsonaia irakurketa hori egiten duen familia batetik dator eta familiari zertarako gai den erakusteko beharra sentitzen du. Hau da, alferra ez dela, gizartea eraldatu nahi duelako dela Lehendakaria, zerbitzurako bokazioa duela.

### **Lehendakaria psikiararenera joaten da. Laguntzen dio?**

Lehendakariak ez du ikusi nahi zergertatzen zaion. Ez daki zergatik dagoen horrela, zergatik gertatzen den hori guztia, eta kanpotik ikusi behar du. Zer gertatzen den erakusten dio psikiatrak, barrura begiratzen laguntzen dio.

## **“Nirea boterea eta eragina duen eta gizartea eralda dezakeen pertsonaia da, baina besteek bezala ipurdian zuloa dauka”**



## **“Antzezlanaren mezuaren atzean ikusi nahi duenak, ikusiko du; baina ondo pasatzea besterik nahi ez duenak ere aukera izango du”**

### **Gure Zirkuarekin hara eta hona ibili zara azken urteotan. Politikak ere badu zirku kutsua?**

Bai, duda barik. “Zailena egingo dugu orain”, esaten da zirkoan, eta gero munduko ariketa errazena egiten dute. Zirkoak pikaokeria puntua du; saltzeko, erakusteko eta jendea erakartzeko behar hori. Politikak ere hortik asko dauka.

### **Zer moduzko esperientzia dihardu izaten Gure Zirkoak?**

Gabonen ostean geldialdia egin

dugu, Errege Magoak joaten direnean zirkoa ixten dugulako, baina orain numero berriak sortzen, pailazoen sketch berriak pentsatzen, aldaketak egiten, jende berria lortzen (bajak ere badaudelako)... dihardugu. Pena ematen digu jendeak zirkoa uztea, baina baita ilusioa ere, jende berria sartzten delako, jende gaztea. Dekoratu ere aldatzen gabilta, fokoak toki batetik bestera mugitzen. Egun batean hamar ordu pasa ditzakegu zirko barruan lanak

egiten, baina beste batzuetan lanerako asmoekin joaten gara eta garagardo bat hartu eta lagun artean pasatzen dugu eguna. Udaberrian berriz martxan jartzeko asmoa dugu eta herri batetik deitzen digutenean bertara joan behar izaten gara neurriak hartzera, zirkoa non jarri dezakegun ikusteko.

### **Urteak daramatzazue martxan, baina zirkoa ez duzue Eibarrera ekarri. Zergatik?**

Ez dakit Eibarren leku aproposik dagoen zirkoa jartzeko. Herri malkartsua duzue! Porrotxi askotan esaten diot: “Zuhaitzen kontuarekin nolako kaltea egiten ari zareten!”. Beldi bat dagoen toki guztietan zuhaitzen bat dago erdi-erdian eta ez digu zirkoa jartzeko tokirik lagatzen (barreak). Herri batzuetatik deitu izan digute zirkoa jarri nahi dutela esateko, baina batzuetan ez dago aukerarik. Eibartik deitu zigiten azken aldian esan ziguten zirkoa Untzagan jartzeko. “Ez dakizue zer diozuen”, erantzun genuen. Plaza handia da, baina esan bizilagun guztiei musika jarrita izango dutela egunero...

### **Eibarren ez bada ere, hemen-dik hurbil ikusi ahal izango dugu?**

Pandemiaren urtean Elgoibarrera joatekoak ginen zirko txikiarekin, baina atzeratu egin behar izan zen eta, gero, ezarri zituzten neurrien ondorioz zirkoa handiagoa ekarri behar genuenez, ez zen pentsatutako tokian kabitzen. Hala ere, maiatzean Durangon egongo gara. Beraz, nahiko hurbil izango duzue.

LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK  
Enkarguak etxera

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

San Andres  
Gozotegia

• tartak  
• enkarguak  
etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73



Desirée Magro

DESIRÉE MAGRO

## Aukerak mirari direnean

Hamaika dira emakumeok jasaten ditugun eraso edo gutxiespenak. Nabarmenak dira sexu erasoek edo tratu txarrek eragiten dituzten ondorioak, baina nik, oraingoan, ixilagoak diren gutxiespenak aipatu nahi ditut.

Emakume izateagatik, amatasunak edo gure senideen zaintzak asko baldintzatzen du gure lana. Elkarrizketetan seme-alabarik ote daukagun edota zaintzarako eskatzen diren orduak (pandemia garaiotan itxialdiekin gertatu den bezala) asko baldintzatzen gaituzte.

Orain, soldata parekidetasunaren eguna (otsailak 22) eta emakume langilearen eguna (martxoak 8) ikuspuntuan dauzagu eta bata zein bestea, behar beharrezkoak direla deritzot. Beste batzuk dira, ordea, lan bila dauden emakumeen arazoak, eta gaur bat azaleratu behar dut.

### “Nahiz eta curriculumak hobetu eta osatu, maskulinizatua dagoen lan esparrua izanez gero, jai dugu”

Badira maskulinizatuta dauden lanpostuak. Hau da, ohi-turengatik edo aurreiritziengatik, gizonaek bete izan ohi dituzten lanpostuak. Izan daitezke aginte postuak edo lan fisikoa eskatzen dituzten lanpostuak, baina biak, maskulinizatuta nabarmen.

Curriculumen dantza, web-orrialdeetan gora eta behera, Lanbide edo antzeko erakundeei ere atea joz... Nahiz eta curriculumak hobetu eta osatu, maskulinizatua dagoen lan esparrua izanez gero, jai dugu.

Askok gehiegikerizat hartuko dute diodana, baina gauzak horrela dira. Nahiz eta hamaika izan diren botatako amuak, denek egiten dute kale. Lanbiden lanean dudak lagun min batek gaia aipatzean esan zidan bezala “zuzenean gizonaek eskatzen digute”. Elkarrizketa bat bera ere ez, hori da dagoen egi bakarra. Eta nola egin aurre horri?

Ez naiz mirarietan sinisten duenatarikoa, baina geratzen zaien ate berri bakarra jo beharrean ote daude: Arrateko Ama Birjinari kandelak ipini eta miraria eskatzea besterik ez zaie geratzen.



Amagoia Gomez

AMAGUIA GOMEZ

## Herri txiki

Aurreko batean aldizkari honetan irakurritako zutabegile baten haria jarraituko dut oraingoan. Eibarren jaioa izanik, ez omen da bertan bizi eta liberazio bat bezala kontatzen zuen egoera. Aspertu egin omen zen herri honetaz eta alde egin beharra sentitu zuen nonbait. Horrela gertatu zitzaidan neuri ere 20 urte nituela. Eibarko giroak itota, “herri txiki infernu handi” sentsazioaz eta gurasoen etxetik kanpo bizitzeko nahiak beste herri batera

eramanez ninduen. Anonimotasun bila. Inolako loturarik ez neukan leku hartara. Hori behar nuen momentu hartan. Zeretik hasteko? Neure burua hobeto ezagutzeko? Sustraiak beste nonbait errotzeko? Auskalo!

### “Aukera bat da bakarrik egotea. Aukera bat da herritik irten eta leku berri batean ezezaguna izatea. Neure erabakia ez balitz, izugarri gogorra egingo litzaidake”

Zazpi urtez bizi izan nintzen bertan. Ni neure buruarekin. Bakarrik. Horrela sentitu izan nintzen gainera. Bakardadea zer zen ezagutu nuen. Etxean inor gabe egoteaz gain, kalera atera eta inork ez ninduen ezagutzen. Ezezaguna nintzen denontzat. Arrotza. Horrela sentitu nintzen. Horrek dakarren guztiarekin. Ona zein txarra.

Atzera begira, urte politak izan zirela esango nuke, nahiz eta gogorrek ere izan. Gaur egunean bakarrik egoteko momentuak hartzen

ditut, behar ditut eta. Askotan egoten naiz neure buruarekin, baina esan beharra daukat inoiz ez dudala herri arrotz hartan bizi izan nuen bakardade hori berriz ere sentitu. Aukera bat da bakarrik egotea. Aukera bat da herritik irten eta leku berri batean ezezaguna izatea. Neure erabakia ez balitz, izugarri gogorra egingo litzaidake. Jende inguratuta egon eta, hala ere, bakarrik zaudela sentitzea.

Irratian entzun berri dut zorientsuak izateko gizakiak ezinbestekoa duela harreman on eta sendoak garatzea. Derrigorrezkoa. Gaur egun, are gehiago. Sortu ditzagun bada gune horiek, erlazionatzeko eta zaintzarako eremuak. Saretu gaitezen! Infernuan ere ongi bizi gaitzezkeelako.





# Etxeak zure esku

## Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzaren eskaintza oso zabala da. Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inmobiliarietara jotzea besterik ez daukagu. Horietan diharduten profesionalak behar dugun informazio guztia emango digute: etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa.. Eskuaratean daukazun gehigarri hau lagungarri izango zaizuela uste dugu. Eta informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezke sektore honetako adituengana: zeuen premiei erantzuteko prest egongo dira.



[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
943 12 13 95 Bidebarrieta 29



**Legarre.** Ref. 2076

3 logela. Guztiz kanpoko.  
Terraza sarreran.

150.000€



**Ipurua.** Ref. 2061

3 logela eta 2 komun.  
Garajea aukeran.

256.000€



**Urki.** Ref. 2064

2 logela. 3 logela atera ahal  
zaizkio. Balkoia, trastelekua  
eta igogailuarekin.

147.000€



**Urkizu.** Ref. 2075

3 logela. Pisu altu, eguzkitsua  
eta argitsua. Guztiz berriak.  
Kalefakzioa eta igogailuarekin.

250.000€



**Barrena.** Ref. 2066

4 logela, komuna, egongela,  
sukaldea eta terraza.  
Erreforma egiteko.

120.000€



**Isasi.** Ref. 2020

3 logela. Igogailuarekin.  
Irisgarritasun ona.

145.000€



**F. Calbeton.** Ref. 2027

3 logela, 2 komun.  
Izogailua 0 kotara. Berriak.

185.000€



**Juan Gisasola.** Ref. 2028

3 logela. Terrazarekin.  
Izogailua 0 kotan.

210.000€



Toribio Etxebarria, 1  
943 20 03 58  
fincas@euki.com  
www.euki.com



CAP 323



– **Gestio inmobiliarioa:**  
alokairuak, erosketak,  
salmentak, tasazioak,  
kontratuak...

**ETXEBIZITZA,  
GARAJE eta  
LOKALEN  
Salerosketa  
eta alokairua**

– Galdetu zure etxebizitzaren  
**Finantziatorako Bidea:**  
mailegu hipotekarioak,  
pertsonalak...

– **Informazio Pertsonalizatua**

*30 urtetik goragoko esperientzia*





**Abontza** **Kontsultatu**  
3 logela, egongela, sukaldea balkoiaz, 2 komun. Ganbara. Garajea, trastero handiarekin, eta etxera sarrera zuzenarekin.



**Amafia** **95.000 €**  
Eguzkitsua. Bista paregabeak.



**Barrena** **82.000 €**  
Pisu altua. Oso eguzkitsua. Fatxada ekialdera. 3 logela. Igogailua kaletik.



**Bidebarrieta** **210.000 €**  
150 m<sup>2</sup>. Bi etxebizitza egiteko aukera. Igogailuarekin.



**Bidebarrieta** **Kontsultatu**  
Atikoa terrazarekin. Igogailua kaletik.



**Calbeton** **Kontsultatu**  
Bikaina. 2 logela, sukaldea, 2 komun, bainuontzi eta duxarekin. Igogailua kaletik.



**Egigurentarren** **Kontsultatu**  
3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun. Goiko pisua. Garaje itxiarekin.



**Ihar-Kale** **125.000 €**  
2 logela, sukaldea balkoiaz. Igogailua kaletik. Gas-kaletakzioa.



**Isasi** **88.000 €**  
Inbertsio ezinhobea alokatzeko. Igogailuarekin.



**Jardiñeta** **125.000 €**  
Guztia hegoaldera. Bista ezinhobea. Igogailuarekin.



**Julian Etxebarria** **225.000 €**  
Goiko pisua. 4 logela, egongela, sukaldea balkoiaz, 2 komun. Igogailua kaletik.



**Karmen kalea** **Kontsultatu**  
Duplexa. Beheko solairua. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna. Logela komuna eta jantzigelarekin. Igogailua.



**Mekola** **Kontsultatu**  
Eraikin berria. 2 logela, sukaldea, 2 komun, egongela terrazarako (30 m<sup>2</sup>) sarreragaz. Trasteroa eta garajea.



**Romualdo Galdos** **148.000 €**  
3 logela, sukaldea, komuna. Igogailua. Kalefakzioarekin.



**Romualdo Galdos** **165.000 €**  
3 logela, egongela balkoiaz. Ganbararekin. Igogailua eta kalefakzioarekin.



**San Juan** **195.000 €**  
4 logela, egongela balkoiaz, sukaldea, 2 komun. Igogailua kaletik. Kalefakzioarekin.



**San Juan** **Kontsultatu**  
Pisu altua. Oso argitsua. Berrizteko. Igogailuarekin.



**Sautxi** **165.000 €**  
3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun. Trasteroa (25 m<sup>2</sup>) eta 2 plazako garajea. Bista eta orientazio paregabeak.



**T. Etxebarria** **Kontsultatu**  
Pisu altua. Oso eguzkitsua eta argitsua. Igogailua eta kalefakzioarekin.



**T. Etxebarria** **Kontsultatu**  
Berrizteko. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun. 2 balkoi bi fatxadetara. Igogailua kaletik.



**T. Etxebarria** **Kontsultatu**  
Pisu altua. Oso argitsua. Ganbararekin. Igogailua eta kalefakzioarekin.



**Txonta** **Kontsultatu**  
Azken pisua terrazarekin. 3 logela. Igogailua kaletik.



**Untzaga** **159.000 €**  
Guztiz berriztua. 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela armairu enpotratuekin.



**Urki** **87.000 €**  
Pisu altua, balkoiarekin. Oso argitsua. Igogailuarekin.



**Urkizuko dorreak** **Kontsultatu**  
4 logela, egongela balkoiaz. Ezinhobea. Oso eguzkitsua. Igogailua kaletik.





# Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

## KOTA

INMOBILIARIA +  
ARQUITECTURA

info@kotainmo.com

943 20 15 80 Bidebarrieta, 1

KOTA  
INMOBILIARIA +  
ARQUITECTURA



### Zezenbide Kontsultatu

Kanpora begira. Argitsu.  
3 logela, 2 komun, egongela,  
sukaldea, despentsa.  
Garaje ibxia aukeran.



### Jardiñeta 120.000€

Guztiz berritua. Gazteentzat  
aproposa. 3 logela, komuna,  
egongela, sukaldea.  
Balkoi txikiarekin.



### Armagin 177.000€

Apartekoa. 3 logela, komuna,  
egongela-jangela, sukaldea.  
Iggailua eta ganbararekin.



### Ipurua 157.000€

Apartekoa. 2 logela, komuna,  
sukalde-jangela, egongela.  
Balkoi, ganbara eta  
iggailuarekin.



### J. Etxeberría Kontsultatu

120 m<sup>2</sup>. Bizitzera sartzeko  
moduan. Guztia kanpora  
begira, balkoiarekin.  
Iggailua 0 kotan.



### Bista-Eder Kontsultatu

2 eta 3 logelako etxebizitzak.  
Iggailua 0 kotan.



### Erdialdea 124.500€

Berrizteko. 2 logela, komuna,  
egongela, sukaldea.  
Iggailua 0 kotan  
eta trasteroarekin.



### Urkizu 103.000€-tik

2 eta 3 logelako  
hainbat etxebizitza.  
Iggailua 0 kotan.



### Etxebakun Kontsultatu

Familia bakarrekoa.  
366 m<sup>2</sup>, terrenoarekin.  
3 solairuko landexa bitxia,  
igerilekuarekin.



### Sautxi 182.000€

3 logela, 2 komun, egongela-  
jangela, sukaldea. 2 trastero,  
bat argi, ur eta komunarekin.  
Garajeko 2 plaza.

HIGIEZINAK  
**ARREGI**  
INMOBILIARIA

Errebal, 20

Tel./Faxa. 943 203 333    Mobila. 656 766 344  
www.inmoarregi.com

**IBAIONDO**

INMOBILIARIA ETA  
HOME STAGING ZERBITZUAK

T. 943 20 12 13





## Garazi Iriondok irabazi du Euskeraz Primeran!-eko zozketa

>>> Urteroko ohiturari jarraituz, ...eta kitto! Euskara Elkarteak orain dela sei urte abian jarri zuen Euskeraz Primeran! kanpaina neguko merkealdien azokan izan zen aurreko astean. Dendari eta ostalarien artean euskeraren erabilera sustatzea helburu duen ekimenak alde ludikoa eta herritarron inplikazioa uztartu ditu oraingoan ere eta, hainbat hitz-jokotan parte hartzeaz gain, euskararekiko euren konpromisoa jaso dute idatziz parte-hartzaileek. Bestalde, Eibar Merkatalgune Irekiak emandako 100 euroko erosketa-txartelaren zozketan Garazi Iriondo izan zen irabazlea. Zorionak!



## Play Back lehiaketa martxan da

>>> Aratosteetan ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu ohi duen Play Back lehiaketa abian da; atzo amaitu zen lanak entregatzeko epea eta ebazpena datorren astelehenean jakinaraziko da. Pandemia egoera dela-eta, bai iaz, bai aurten, lehiaketa online egin behar izan da. Parte-hartzaileek bideoz grabatu dituzte euren lanak eta horrela jaso ditu epaimahaiak. Behin ebazpena jakin ondoren, martxoaren 1ean, martitzena, banatuko dira sariak. Epaimahaiaren ustez mozorro, koreografia eta interpretaziorik onena egin duten taldeak izango dira sarituak. Lehiaketan Eibarko LH5. eta 6. mailetako ikasleek hartzen dute parte.



## Berbalagunak euskaltegian, programaren berri ematen

>>> Berbetan programako berbalagunak, dinamizatzailearekin batera, Udal Euskaltegian izan dira asteon, bertako ikasleei egitasmoaren berri ematen. Iñigo, Eli eta Julio berbalagunak dira aspalditik eta euren esperientzia kontatu zieten euskaltegiko euskara ikasleei. "Argi dago euskara ikasteko lekurik onenak euskaltegiak direla, baina Berbetanek ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ematen digu; inguruan euskara praktikatzeko euskaldunik ez duenarentzat aukera paregabea dira mintza-praktikako taldeak", adierazi zuten. Giro natural eta informala eskaintzen dute Berbetaneko taldeek. Astean behin elkartzen dira ordubete taberna batean, lasai-lasai euskaraz berba egiteko. Eskaintza ere zabala da, "astelehenetik barixakura, egunero ditugu taldeak, eta goizez zein arratsaldez", diote elkartetik. Urte osoan eman daiteke izena (943200918 / elkartea@eta-kitto.eus) eta doan da.



## Barixakuak Jolasianeko jolasak Urkizun izango dira gaur

>>> Urkizuko parkeak hartuko ditu gaur arratsaldean Barixakuak Jolasianeko jolasak. Arratsaldeko 17:00etan hasita ordubeteko jolasak egingo dira HH3 eta LH2 mailen arteko umeentzat, doan eta begiraleen laguntzarekin.



# Hamar urteko bidaiia fantastikoa

Barixaku arratsaldea da eta giro goibela dago herrian, euritsua. Momentu aproposa rol edo mahai-jokoetan aritzeko. Odisea elkartekoek ondo dakite zer den hori eta eurekin elkartu gara Barrena kalean duten egoitzan. Fernando de la Torrek, Mikel Feijook, Gurutz Rodriguezek, Raul Santosek eta Ibai Alonsok beso zabalik hartu gaituzte, eta euren pasioaz jardun dugu euria baretu artean.

**O**disea elkartea 2012an sortuzen mahai-jokoak, rol-jokoak, wargameak (gerra-jokoak), estrategia-jokoak, karta-jokoak eta antzeko jokoak herrian hedatzeko asmoz. Eta, moduren batean, helburua lortu dutela esan daiteke. “Azken urteetan mahai, rol eta bestelako jokoen mundua asko hedatu da gizartean, gero eta gehiago ikusten dira”, esan digu Mikel Feijoo Odisea elkarteko presidentek.

Hazten zegoen mundua zen, baina pandemiak erabateko bultzada eman dio. “Ni, adibidez, iaz egin nintzen bazkide. Izan ere, dena erdi itxita zegoenez eta ia ezin ginenez etxetik irten, hemen lagunak nituen eta izena ematera animatu nintzen. Horrela, zerbait ezberdina egiteko aukera izan nuen”, kontatu digu Ibai Alonsok.

Gurutz Rodriguezek, oster, beste faktore bat azpimarratzen du: “Jendea etxeetan elkartu da lagunekin edo familiarekin, eta ohiko jokoeekin aspertuta (partxisa, oka-jokoa...), beste joko

batzuk probatu dituzte”. Ohiko jokoak atzean geratu dira mahai-joko berrien aurrean, baina ohiko joko horiek oinarri hartuta joko interesgarriak garatu dituzte ere. “Adibidez, Jumanji izeneko jokoak okajokoaren antza du, baina Jumanji pelikularekin uztartuz eta pizgarri berriak eskainiz”, Raul Santosek dioenez.

## Jokatzearen gozamen

Jokoak dira eta, ondorioz, lehia dago, baina Odiseako lagunek diote irabazteak edo galtzeak ez duela berebiziko garrantzirik. “Jokatzerako orduan esperientzia ona edukitzea da garrantzitsua”, Fernando de la Torrereren iritziz. “Partida luzeak direnean, bidean bizi izandako guztia kontuan hartuta, berdin da nork irabazten edo galtzen duen”, dio Santosek.

Lehia garrantzitsua ez bada ere, Odisean lehiaketak antolatzen dituzte. “Joan den asteburuan, adibidez, Infinity jokoaren txapelketa egin genuen gure lokalean”, diosku Feijook.

## BIDEOA IKUSTEKO



Gainera, elkartea bera eta bertan dituzten jokoak herrira zabaltzeko asmoz, ludoteka jarritzen dute Untzagan San Juan jaietan. Azken bi urteotan ezin izan dira jaietan egon, baina, gauzak ondo, aurten bai eta, gainera, elkartea hamar urte betetzen dituen, udazkenean zerbait berezia antolatzeko asmoa dute.

Euren lokalean jokatzeaz gain, Odiseakoek beste herrietako lehiaketa batzuetan ere hartzen dute parte. Izan ere, Odisea ez da mota honetako elkarte bakarra Euskal Herrian

eta mahai-jokoek toki ezberdinetako jendea ezagutzeko aukera eman die. “Hiriburuetan elkartek daude, baita Bergaran ere”, batzuk aipatzearen. Horrela, toki ezberdinetan antolatzen diren lehiaketetara joaten dira eta atzerrira joateko aukera ere izan dute. De la Torre berak Stars Wars: X-Wing Miniatures jokoaren inguruko Jakku Opena irabazi zuen Frantzian eta mundiala jokatzeo aukera izan zuen Minnesotan (AEB). “Odisea bezalako elkartek nahiko arraroak dira hemen inguruan, baina Europa mailan demaseko mugimendua dago”, zehaztu digu De la Torrek.

Jokoak, gainera, ez dira denbora-pasa soila. “Enpreetan asko erabiltzen dira, batez ere langileak hautatzeko orduan. Jokatzan dugun moduak asko esaten du pertsona bakoitzaren inguruan”, diosku azken honek.

Antzeko zerbait gertatzen da zenbait jokotan erabiltzen diren miniaturekin. “Batzuek asko zaintzen dute miniaturak nola egin edo margotu, xeheta-





Odisea elkarteko Ibai Alonso, Fernando de la Torre, Raul Santos, Gurutz Rodriguez eta Mikel Feijoo. EKHI BELAR



Joko mota asko dituzte Odisea elkarteko ludotekan. Horien artean Warhammer 40K da ezagunenetakoa. EKHI BELAR

sun txikienari ere garrantzia emanez. Beste batzuek, oster, ez dira gehiegi konplikatzten. Edonola ere, miniaturrek asko esaten dute pertsona baten inguruan eta esan daiteke miniaturrei gure izaera ematen diegula”, diosku Rodriguezek. Esan digunez, berak asko zaintzen du arlo hori.

#### Mila mundu Odisea barruan

Odiseak Portalean izan zuen lehen egoitza. “Gela batzuk alokatzen genituen eta bariakuetan eta domeketan jo-

katzera joaten ginen”, gogoratzen du Feijook. Ahoz ahokoak ondo funtzionatu zuen eta gero eta lagun gehiagok eman zuen izena elkartean. 2017an Barrera kalean lokal bat hartu eta txukundu zuten, zenbait mahai jarritz, ludoteka osatuz eta beira-arasa batzuetan bazkideek sortu eta ondo zaindutatako miniaturrek jarritz, besteak beste.

Lokalean sartu eta eskuinetara tailer moduko bat ikusi daiteke eta, bertan, zenbait jokatari aritzeko beharrezkoak

## Odiseako bazkide batzuek seme-alabak dituzte eta eurentzat garrantzitsua da belaunaldien arteko jokoak sustatzea

diren miniaturrek sortzen eta margotzen dituzte. Artisanu lana da euren eta pieza ikusgarriak sortzen dituzte.

Mahai handiak dituzte lokalean, tokia behar baita joko batzuetan aritzeko. Star Wars pelikularen figurak ikusi ditzakegu mahai batean, Magic kartak beste batean eta Warhammer 40K jokoan aritzeko prestatu duten mahai bat. Warhammer 40K bogan dagoen jokoak da eta aipatutako miniaturrek behar dira hortan jokatzeke.

Horrek adibide batzuk besterik ez dira, kolore, ezaugarri, irudi, istorio, jokatzeke modu eta estiloko joko ezberdinak aurkitu daitezkeelako Odisean. Eta, bestela, norberak eraman ditzake etxetik. “Eurogameak, wargameak, Catan, Aristeia, Nemesis...”, aipatzen dituzte, baina zerrenda ia amaigabea da.

Gaur egun 25 bazkide ditu Odiseak, adin-tarte zabala hartuz. Gainera, bazkide batzuek seme-alabak dituzte eta eurentzat garrantzitsua da belaunaldi ezberdinen arteko jokoak sustatzea. Horregatik, Odisearen ludotekan mota askotako jokoak aurkitu ditzakegu, bazkideen eta eurekin joaten diren lagunen nahiak asetzeko adina. “Joko hauek duten gauza ona da pertsona bat baino gehiago behar dela jokatzeke eta, ondorioz, sozializatzen eta besteekin partekatzen laguntzen duela”, diosku presidenteak.

Hau irakurri ondoren jokatzeke gogoarekin geratu bazarete, Odiseako ateak edonorentzat daude zabalik eta odiseaasociacion@gmail.com helbidera idatzita edo sare sozialen bitartez jarri zaitezke harremanetan elkartearekin. ■

## Martxoaren 3ko tailerrarekin hasiko dira Mendi Jardunaldiak

>>> Eibarko Klub Deportiboko mendi taldeak martxoaren 3an hasi eta 31n amaituko den hilabete osoko Mendi Jardunaldiak antolatu ditu. Datorren asteko eguenekoa egitarau horretako lehenengo ekitaldia izango da; bertan Zigor Artega eibartarrak mendiko mapen interpretazio tailerra eskainiko du Deporren bertan, arratsaldeko 18:30etik aurrera. Plaza mugatuak direnez, interesatuek mendia@deporeibar.com helbidera jo dezakete edo, bestela, martitzen eta eguenean (19:30/20:30) Deporretik pasatu.

Bestalde, aurreko zapatuan 50 mendizale elkartu ziren



Brinkolatik Zerainera prestatutako Deporrek mendi irteeran. Txangoa ere berezia izan zen, tradizioari jarraituz sagardotegi batean amaitu zutelako. Datorren asteburuko zapatuan,

martxoak 5, izango dute hurrengo hitzordua mendizaleek, Artzaintzaren Naturbidearen 11. etapa osatzeko. Otzaurtetik Arantzazura eramango dien txangoak 16,3 kilometro izango

ditu eta bidean 1.277 metroko Milpiribil igoko dute. Zalantzak dituen baztertu ditzala, "aukera paregabea delako Arantzazu Parke Naturalean ibili eta gozatzeko".

## Bi domina Eibarko atletentzat Gipuzkoako kros txapelketan

>>> Kros denboraldiaren amaiera aprobetxatuz, aurreko asteburuan Ordiziako Oiar-

gu parkean jokaturako maila guztietako Gipuzkoako txapelketan, Kalaka Gonzalezek

txapela jantzi zuen 20 urtez azpikoen mailan eta Alaitz Sanz hirugarren izan zen 16 urtetik azpikoen artean. Azken maila horretan, bestalde, Ugaitz Gartzia laugarren postua lortu zuen eta Manex Gisasolak zortzigarrena. Master edo beteranoen mailan bi izan ziren Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak: Roberto Gartzia bederatzigarren amaitu zuen eta Igor Fernandez 21. postuan sailkatu zen.

Eta proba berean Deporrek infantil eta alebin mailetakoa atletentzat lehenengo txapelketa ofiziala izan zen lasterketan

honako seikoteak hartu zuen parte: Martina Egaña, Marko Malaga, Ander Azurmendi, Nahia Astigarraga eta Haizea eta Maialen Magunazelaia.

Azkenik, absolutu mailan lehiatu zuten Garoa eta Enara Magunazelaia 5. eta 7. postuetan sailkatu ziren Euskadiko txapelketako xabalina jaurtiketan. Urrutirago joanda, Izaro Bernedok 20. postuan amaitu zuen Iruñan jokaturako martxa modalitateko 5 kilometroko proban; eta Eneko Larrea, Real Sociedad ordezkatzuz, 4. postuan sailkatu zen Espainiako Kopako altuera jautsian.




Alebin eta infantil mailetakoa Klub Deportiboko krosleriak.



## Jaz Eibarko ordezkariak hainbat probatan izan dira

>>> Aurreko asteburuan Eibarko klubak bi ordezkari izan zituen Sopelan jokaturako Euskadiko Triatloi Federazioaren egutegiko bigarren esprint duatloian. Roberto Gartzia 67. postuan sailkatu zen, bosgarrena izateko bere mailan, eta Aitor Fernandez 92. pos-

tuan helmugaratu zen. Lehenengoak 1:03:36 denbora egin zuen eta bigarrenak 1:06:22 markatu zuen. Horrez gain, Jaz Eibarko Moises Altunak eta Esther Pagueyk Areeta-Bilbo lasterketan hartu zuten parte, eta Ander Egurrolak Antzuolako 8 Milletan lehiatu zuen.





## Domekako Udaberri Sariarekin hasiko du denboraldia Eibarko Txirrindulari Elkarteak

>>> Gure herriko txirrindulari elkarteak denboraldiko lehenengo hitzordura gonbidatuko gaitu etzi jokatu den Udaberri Sariaren 44. edizioarekin. Junior mailako lasterketa hori Untzagan hasiko da goizeko 09:45ean eta nazional kategoriako txirrindulariak bilduko dituen probak 78 kilometro izango ditu. Eibartik Bergaraino joango dira hasieran eta, ondoren, handik Maltzagarai-

no bueltatuko dira eta handik Debara joko dute, Markinarako bidea hartuz 3. mailako San Miguel gainera igotzeko. Hortik Elgoibarrera jaitsiko dira, zuzenean Eibarreruntz abiatzeko, aurten berriro ere Torbio Etxebarria kalean kokatuko den helmugaren bila. Aurreikusitako ordutegiari jarraituta, lehenengoek 11:45 bueltan helmugan izatea espero dute.



## Eibar FT-k lidergoari eusteko asmoz hartuko du Burgos etzi eguerdian

>>> Gaizka Garitanoren taldeak bere atea zaintzeko erakusten diharduen mailari esker (golik ez du jaso azken partiduetan) puntuak bereganatzen dihardu eta sailkapeneko gorengoan dugu gaur egun. Domekan,

14:00etan hasiko den neurketan, sailkapenaren erdialdean dagoen Burgos jasoko du Ipuruan jokoan izango diren hiru puntuak bereganatzeko asmoz. Almeria, Valladolid eta Ponferradina gertuegi dituelako.



## Bar Txoko foball-zaletuaren Ligako lidergoan hiru partidu gutxiagorekin

>>> Ligako bigarren itzuliaren erdialdera gerturatzen doazen neurrian, parte hartzen duten taldeen arteko lehia gero eta argiago ikusten dira gauzak. Hainbeste Bar Txoko faborito nagusizat jo dezakegula, ikusita liderraren atzetik dauden Feredu Bar EzDok eta Garajes Garcia puntu batera eta hirura daudela, hurrenez hurren, Txokok baino hiru partidu gehiago jokatu dituztenean. Aldea,

beraz, handia da dagoeneko, azken jardunaldiko emaitzek ondo erakutsi zuten. Fereduk 2-1 galdu zuen America Sportekin eta Garajes-ek 4-3 JMR Tankemans-ekin; bitartean, Txokok 1-0 irabazi zion Bali Center Sports-i. Bestalde, azkenen arteko norgehiagokan, Chic-ek 3-1 irabazi zion Bar Banaka L. Ruedari eta, emaitza horrekin, aurea hartu dio azken honi.

## Garaipenetik garaipenerako bidetik jarraitzen dute Arrate Eibarkoek

>>> Azken jardunaldian ere Eibarko taldeek ez zuten kalerik egin eta, gizonezkoen lehen taldeak Ipuruan Tolosari 36-26 irabazi zion bitartean, emakumezkoena 24-29 nagusitu zen Leioan. Fernando Fernandez mutilen ibilbideak ez du etenik eta, 18 garaipen eta berdinketa bakarraren ondoren, lidergoan gero eta sendoago daude: Anaitasuna dute atzetik, sei puntura. Urterik urte Tolosa ez da aurkari erraza izan orokorrean, baina oraingoan Arrate Eibar Eskubaloikoek jakin izan zuten norgehiagoka kontrolpean izaten denbora guztian. Mikel Zuloaga

izan zen eibartarren goleatzailer nagusia, bederatzi golekin, Asier Urainen aurretik (zazpi lortu zituen honeka). Bestetik, Andoni Perezen neskek Lema Transit Askartza taldearen kantuan eskuratutako garaipenarekin, Arrate Eibarkoek Omega Peripherals Basaurirengandik bi puntura jarraitzen dute bigarren tokian, eta orain atzetik duten Bera Bera hirura urrundu dute, donostiarrak azken jardunaldian berdinketarekin konformatu behar izan zirelako. Amaia San Martinek oso ondo zuzendu zuen taldea eta Ane Treviñok bost gol lortu zituen.

## Aleu Cid errugbilariak nazioarte mailan debutatu du selekzioarekin

>>> Eibar Rugby Taldeko jokalariek parte hartu zuen Herbeheretako selekzioaren aurka Espainiarekin jokatuako partiduan. Europako Txapelketari zegokion partidu horretan jokatu zuen baita Anne Fernandez de Corres taldekideak ere, azken horrek titular bezala erdiko apertura postuan. Espainiak 0-69 irabazi zuen eta Cid-ek maila onean jardun zuen.

Bestalde, Eibar Rugbyko emakumezkoen bigarren taldeak 22-15 irabazi zion Elorri-ri azken jardunaldian, partiduz partidu daraman progresioa erakutsiz beste behin. Taldeko zazpi jokalariek aurten hasi dira errugbian. Azkenik, Ohorezko B Mailako gizonezkoen taldeak domekan Palentzian jokatu du, eguerdiko 12:30ean, azken sailkatuaren kantuan.





Koko-marru bihurriak. FERNANDO RETOLAZA





## Gorosta eta Mandiola auzoetara koko-eskean

Kezka dantza taldearen kokomarru eta koko-dantzariak kolore biziz jantzi zuten zapatuko goiz euritsua. Merkatu plazako baserriarren aurrean eguneko lehen agerraldia egin eta gero, autobusera igo eta baserrietarako bidea hartu zuten, Gorosta eta Mandiola auzoetan koko-eskea hasteko: Orbea, Eskaregi, Agirregainekoa, Agirreazpikoa, Azaldegainekoa, Nagiorbe, Nagiorbekoa, Boneta, Sagarbieta, Azpiri, Mandiolagainekoa, Mandiolazpikoa eta Arlaban baserrietara eraman dituzte Aratosteak aurten. Goiz osoa baserriarik baserri ibili eta gero, arratsaldean, Eibarko erdialdeko kaleetan ibili ziren, kalejiran.

ARGAZKIAK: FERNANDO RETOLAZA

BIDEOA IKUSI NAHI?







## Kaleak musikarekin girotzeko ikuskizunek osatzen dute aurtengo Aratosteetarako Udalak antolatu duen egitaraua

Orain arte aurreikusita zeuden jardueri eutsi eta berri batzuk gehitzea erabaki du Udalak, baina, hala ere, programa batez ere eguneko ordutegian egiteko jarduerak osatuko dute, "ahal den neurrian jende-pilaketak murriztuz eta luzaroan toki berean egotea saihestuz, eta beharrezko prebentzio-neurriak hartuz. Hau da, segurtasun-distantzia zaindu ezin den jardueretan maskarak erabilitea gomendatzen dugu".

Egitaraua, berez, zapatuan hasi zen, Kezka Dantza Taldearen Koko-dantza eta koko-eskearekin. Atzo, berriz, haurrak izan ziren protagonista, bakoitzak bere ikastetxean egindako jaialdiekin batera. Eskolatik irtetea, berriz, Urkizutik Untzagara bitartean kalejira egin zuten, Adolfo Jainaga eta bere trikitixa eskolakoekin batera. Jaiak Untzagan jarraitu zuen, iluntzera arte, Mugi Panderoa taldearen eritmorra.

Gaur, Barixaku Erregularra ospatzeko, 20:00etan abiatuko da Urkizutik Kaldereroen kalejira, Untzagaraino. Besteak beste Kezka dantza taldeak eta Ustekabe fanfarreak hartuko dute parte.

Aratoste Zapatuan, berriz, 12:30etik aurrera, Rock Kallean taldeak eta Ustekabe fan-

farreak kaleak girotuko dituzte, musikarekin. Gainera, 18:30etik 21:30era, Alaiki taldeak haurrendako dantzaldia eskainiko du Untzaga plazan. Eta, kaleak musikaz betetzeko, 19:00etatik aurrera Molto Vivace Funky Brass Band taldea ibiliko da kalejiran. Gauean, berriz, 23:30etik goizaldeko 02:00etara, bigarren berbena bat egingo da, Alaiki taldearekin. Dantzaldi bien kasuan, Udalak bertaratutakoen artean maskaren erabilera kontrolatuko duela eman dute aditzera.

Aratoste Domekan, Usartza Txistulari Bandak kalejira egingo du, 11:30ean. Untzagatik abiatuta, erdialdeko kaleetan ibiliko dira. Aratoste Martitzenean (martxoak 1) amaituko dira ospakizunak, 17:30ean hasiko den Ustekaberen kale-animazioarekin.

### Bidali zuen argazkiak

Datorren asteko astekarian Aratosteetako giroa argazki bidez jasotzen ahaleginduko gara. Guk egindako argazkiekin batera zeuena kaleratzea nahi baduzue, erredakzioa@etakitto.eus helbidera bidali edo gure sare sozialetan partekatu, #AratosteKitto traola erabilita, eta datorren asteko aldizkarian sartuko dugu.



## Aratosteak Amaña auzoan ospatzeko egitaraua bete

Aratosteak auzoan bertan ospatzeko moduko egitaraua prestatu du "Amaña es la caña" elkarteak, atzotik hasita: Amaña herri ikastetxearekin batera kalejira egin eta gero, txokolata eta musikarekin girotu zuten auzoa. Gaur arratsaldean, berriz, Lekim Animazioak taldearen eskutik umeendako eskulanak eta jolasak prestatu dituzte, 17:00etan. Ordubete geroago txorizo-pintxoak banatuko dituzte eta 19:00etatik aurrera "musi-poteoa" egingo

dute auzoko tabernetatik, koka-jantzita.

Bihar, 17:00etan, umeendako txotxongilo ikuskizuna eskainiko du Bihar taldeak; 18:00etan, umeendako txokolate-jana hasiko da; eta 19:00etan, DJ baten emanaldia eta "Amaña es la caña" Aratosteetako argazki-lehiaketa. Domekan amaituko dituzte ospakizunak: 10:00etan salda eta txorizo banatuko dituzte eta 12:00etatik aurrera "musi-poteoan" ibiliko dira, auzotik.

## Uni Encounter ekimena egingo da gaur eta bihar

Asteburu honetan Uni Encounter teknologia berrikin lotutako ekimena bueltatuko da UNI Eibar-Ermua ikastetxera. Jarduerak, funtsean, dibulgazioak eta teknikoak izango dira, nahiz eta alderdi ludikoa ez ahaztu. Informatikaren munduan garrantzitsuak diren pertsonen emandako hitzaldiak izango dira, baita tailer praktikoak eta sareko jokoen lehiaketak ere. Gaztetxoek bideo-jokoetan aritzeko aukera izango dute UNiko instalazioetan barixaku arratsaldetik zapatu arratsaldera bitartean.

Aurten gehien nabarmendu nahi diren alderdiak hauek dira: segurtasun informatikoa edo zibersegurtasuna, Software Librearen mugimendua eta gi-



zartean duen eragina, entretenimendu digitalaren industria eta kirol elektronikoaren fenomenoak, bai eta puntako teknologiak ere.

Uni Eibar-Ermua bigarren hezkuntzako institutuko Informatika Sailak antolatzen ditu topaketak, hemezortzigarren urtez jarraian. Streaming bidez ere jarraitu ahal izango da.





## Txaloren “Lehendakari gaia” Antzerki Jardunaldien eskutik

Martitzenean zabaldu zituzten modu ofizialean XLV. Antzerki Jardunaldiak, “El veneno del teatro” izenburuko hitzaldi-solasaldiarekin. Ramón Barea eta Mikel Losada aktoreak aritu ziren ofizioari buruz berbetan, Irene Hernando antzezle eibartarrak aurkeztu zuen ekitaldian.

Datorren astean ere izango dugu antzerkiarekin gozatzeko aukera aparta, Txalo Produzioak konpainiaren esku-

tik. Astelehenean “Lehendakari gaia”, Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga protagonista dituen lana taularatuko dute eta eguaztenean lan bera, baina gaztelerazko bertsioan (“El candidato”) eskainiko dute bi aktore ezagunek. Egun bietan 19:00etan hasiko da emankizuna, Coliseo antzokian, eta sarrerak 12 euro balio du (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



## “La banda de Late Motiv” taldearen rock-and-rollak beteko du Coliseoa gaur iluntzean

Gaur 20:30ean hasiko da Coliseo antzokian “La banda de Late Motiv” taldearen kontzertua. Bartzelonako Ricky Falkner musikari eta ekoizlearen eskutik sortu zen taldea, Andreu Buenafuentek aurkeztutako saioan parte hartzeko Espainiako zuzeneko musikaririk onena bilatzeko eskatu ziotenean.

Taldeak Rock musikako klasikoak, R&B, soula eta talde handien (Rolling Stones, The Beatles, Ray Charles, Sam Cooke, Wilson Picket, Otis Reding, Michael Jackson...) musika-estiloen errepaso eskaintzen ditu. Sarrerak 15 euro balio du (10,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



## Adolfo Castaños Garrofe gogoan

Adolfo Castaños Garrofe oroitzeko poesia-errezitaldia antolatu dute haren familiak eta lagunak, Gerrarik Ez Eibar taldearekin batera. Saio bikoitza prestatu dute: martxoaren 19an (zapatua), 18:30ean Portaleko areto nagusian eta hurrengo egunean, berriz, Bilbon, 12:00etan Malatesta Kultur Lubakian hasiko den ekitaldian omenduko dute. Parte-hartzaileak, besteak beste, Oskar, M<sup>a</sup> Angeles Igartua, Guiomar Castaños, Monica Merino, Juan Gomez “Txonta”, Garbiñe Perez Kortajarena, Lurdes Gonzalez, Rafa Herce, Felix, Goiko, Al Victor (bideo), Mikel Orrantia, Patxi Dinamita, Mi, Sindy Otero eta Asier Ezenarro dira eta Lorea Perez gitarra-joleak eskainiko du musika. Nahi izanez gero, Adolfoaren poemak irakurtzeko aukera egongo da.

## Irakurketa Errazari buruzko saioa

Eguenean (martxoak 3) Irakurketa Errazaren inguruko saio berezia egingo da Juan San Martin Liburutegian, bertako Irakurketa Errazaren funts bibliografikoa aurkeztu asmoz. Lehenengo, Blanca Mata “Lectura Fácil Euskadi – Irakurketa Erraza” elkartereko arduradunak Irakurketa Errazaren kontzeptua eta hura garatzeko aukerak aurkezteko hitzaldia emango du, 17:30ean. Eta, jarraian, herriko hainbat elkarterekin (Atzegi, AGIFES, Eibarko Helduen Hezkuntza Iraunkorrerako ikastetxea eta San Andres egoitza) eta erabiltzaile batzuen gurasoekin mahai-ingurua egingo da, Irakurketa Errazak irakurtzeko zailtasunak dituztenei nola laguntzen dien azaltzeko.



## Sanchez Vallejoren liburu berria

Gaur arratsaldean, 19:00etan aurkeztuko du Juan Sanchez Vallejo psikiatra eibartarrak bere lanik berriena, “Los efectos colaterales de la pandemia” (Ediciones Atlantis) liburua. Aurkezpena Portalean izango da eta, amaieran, egileak nahi duenari liburua sinatuko dio.



# 10

**DESBERDINTASUN  
DAUDE BI IRUDI  
HAUEN ARTEAN**



				8	2		
			9	4			7
	6	2	7			9	3
9	8						6
		4				3	
	3						2 8
2		3			7	6	9
	5			6	9		
		9	5				

1	5	8	7	2	9	6	3
2	7	4	9	6	1	5	8
3	6	9	1	8	4	2	7
4	2	1	5	3	7	8	6
5	3	2	8	4	6	9	1
6	8	3	7	5	2	1	4
7	1	6	4	3	9	8	5
8	9	5	2	7	3	6	4
9	4	8	6	1	5	3	2

soluzioa

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

9	1	6	7	2	9	4	3
2	8	7	4	9	6	1	5
3	6	9	1	8	4	2	7
4	2	1	5	3	7	8	6
5	3	2	8	4	6	9	1
6	8	3	7	5	2	1	4
7	1	6	4	3	9	8	5
8	9	5	2	7	3	6	4
9	4	8	6	1	5	3	2

soluzioa

		4			6		8
1	8				2	3	
				5			4
8	7				5	2	
		3	6				7 1
4				6			
		8	7				6 2
	3		8			9	



# Otsailak 25 / Martxoak 3

## BARIXAKUA 25

### UNI ENCOUNTER

**18:30** "CTF Zibersegurtasuna. Una forma práctica de acercarse". Hizlariak: Unai Combarro eta Mikel Elizondo (Zibersegurtasuna ITn espezializazio zikloko ikasleak). Uni Eibar-Ermua.

### LIBURU AURKEZPENA

**19:00** Juan Sanchez Vallejoren "Los efectos colaterales de la pandemia" (Ediciones Atlantis) liburuaren aurkezpena eta liburuak sinatzea. Portalea.

### BARIXAKU ERREGULARRA

**20:00** Kaldereroen kalejira, Urkizutik Untzagaraino.

### MUSIKA

**20:30** "La banda de Late Motiv" taldea. 15 euro (10,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

## ZAPATUA 26

### UNI ENCOUNTER

**12:00** "Eskubide Digitalak: neutraltasuna. Zer egiten dute multinazionalak gure seme-alaben datuekin?". Hizlariak: Gorka Julio (Thalaios.koop) eta Alberto Larras (IsardVDI). Uni Eibar-Ermua.

### ARATOSTE ZAPATUA

**12:30** Kale animazioa, kaleko rock emanaldiarekin eta Ustekabe fanfarrearen kalejirarekin. **18:00/ 21:30** Haurrendako dantzaldia, Alaiki taldearekin. Untzaga. **19:00** Kale animazioa, Funky Brass Band taldearekin. **23:30/02:00** Berbena, Alaiki taldearekin. Untzaga.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30** HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipuru kiroldegia.

### ARATOSTE JAIALDIA

**19:00** Mojito-jaia. **22:00** Kontzertua: The Red Army eta Loracephunk. **00:00** DJ-ak. 5 euro. Eibarko Gaztetxian.

## DOMEKA 27

### TXIRRINDULARITZA

**09:45** 44. Udaberri Saria. Untzaga.

### OMENALDIA

**11:30** Felix Elkoroiriberi omenaldia, Untzagako jubilatutako etxekoan eskutik. Coliseo antzokia.

### ARATOSTE DOMEKA

**11:30** Usartza Txistulari Bandaren kalejira. Untzaga.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30** HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipuru kiroldegia.

### DOMEKAK KIROLIAN

**17:45/19:45** Kirola eta jolasak, 8-11 urte arteko haurrentzat. Ipuru kiroldegia (kantxaN).

## ASTELEHENA 28

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Lehendakari gaia" (Txalo Produkzioak). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartela). Coliseoan.

## MARTITZENA 1

### IBILBIDE OSASUNTUAK

**10:00** Herritar guztientzat zabalik, 5 km-ko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkartearen lokaletik.

### ARATOSTE MARTITZENA

**17:30** Kale-animazioa, Ustekaberekin.

### HITZALDIA

**18:00** "Familia eta buru osasuna. Familiak erreperazio-prozesuan duen papera" (gaztelaraz), Itxasne Gallastegi, Agifeseko psikologoaren eskutik. Agifesen egoitza (Urkizu, 9).

### HARIXA EMOTEN

**19:00** Idazlearekin Harixa Emoten: Amaia Telleriaren "Haize-lekuak". Portalean.

## EGUAZTENA 2

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "El candidato" (Txalo Produkzioak). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

## EGUENA 3

### HITZALDIA

**10:00/12:00** "Begiak ikusten ez duena". Hizlaria: José María Fernández Basterretxea argazkilaria. Ikasten elkartearen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola.

### JARDUNALDIAK

**17:30** "Irakurketa erraza": hitzaldia eta mahai-ingurua. Juan San Martín Liburutegia.

### GURASOAK MARTXAN

**18:00** "Nola landu egoera zailak (doluak, beldurrak...) gure seme-alabekin?" (2. zatia). Portalea (areto nagusia).

### MENDI JARDUNALDIAK

**18:30** Mendiko mapen interpretazio tailerra. Zigor Arteagaren eskutik. Eibarko Klub Deportiboa.

### INAUGURAZIOA

**18:30** "Berdintasunerako bide luzea: Euskadiko emakumeak XX. mendean" erakusketaren inaugurazioa. Portalea.

## ERAKUSKETAK

### Otsailaren 27ra arte:

- "KARTOIHALAK" (kartoiak-oihalak), eskuz egindako artelanak (Topaleku)

### Otsailaren 28ra arte:

- "ARGIZAIOLA 2020" argazkiak (Depor taberna)  
- BAKARNE ELEJALDERen argazkiak (Portalea jatetxea)

### Martxoaren 27ra arte:

- "BERDINTASUNERAKO BIDE LUZEA - EUSKADIKO EMAKUMEAK XX. MENDEAN" (Portalea)

## ESKUALDEKO agenda

## ELGOIBARREN

### KONTZERTUA

**25ean (barixakua) / 19:00** Herriko Antzokia "Zelanda" eta "Dientes de luna" taldeekin.



## DEBAN

### KONTZERTUA

**25ean (barixakua) / 20:00** Kultur Elkarteko Aretoa Olatz Salvador.



## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Eguraldia (euskalmet.net)



## Hildakoak

- **Jose Maria Alberdi Arrieta.** 93 urte. 2022-02-17.
- **Juan Jose Castañon Larrea.** 65 urte. 2022-02-17.
- **Manuel Vazquez Mancera.** 84 urte. 2022-02-19.
- **Benjamin Azpilikueta Antunez.** 95 urte. 2022-02-19.
- **Luis Maria Matanzas Setien.** 71 urte. 2022-02-21.
- **Ametz Martin Bastida.** 10 urte. 2022-02-22.

## Jaiotakoak

- **Yasmin Mansouri Talbi.** 2022-02-14.
- **Ahmed El Mamzaoui** 2022-02-14.
- **Mohamed El Mamzaoui** 2022-02-14.

## Farmaziak

- BARIXAKUA 25**  
EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)
- ZAPATUA 26**  
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)
- DOMEKA 27**  
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)
- ASTELEHENA 28**  
EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)
- MARTITZENA 1**  
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)
- EGUAZTENA 2**  
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)
- EGUENA 3**  
EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)
- BARIXAKUA 4**  
EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

**GAUEZ BETI,** 2022an,  
Mendinueta (Urkizu, 6)



## Carlos Iraola Zubizarreta

1. URTEURRENA: 2021 / 02 / 27

*“Nahiz eta urtebete igaro utzi gintuzunetik,  
beti biziko zara gure oroitzapenetan”* – ETXEKOAK –



## URBANA BENGOA EZKIBEL

1. URTEURRENA: 2021-02-22

*“Betiko gure bihotzetan”.* **ZURE FAMILIA**

Haren aldeko URTEURREN MEZA ospatuko da otsailaren 27an  
(domeka), 12.00etan, SAN ANDRES parrokian.





688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **AITOR!**  
Domekan 8 urte beteko dozuz-eta. Musu mordoxka bat, maittia!



Zorionak, **ALBA**,  
hillaren 29xan 6 urte beteko dozuz-eta. Musu pillo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANDER**,  
gure mutiko alai eta txintxa. Musu potolo bat famelixa guztiaren eta, batez be, zure anai Julenen partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak, **ODILE!**  
Domekan 10 urte egingo dozuz-eta! Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **EUKEN!!!**  
Zapatuan 9 urte egingo dozuz-eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, Xuhar, Julene eta zure arreba Pauleren partez.



Zorionak, **JON**,  
otsailaren 27an 7 urte beteko dozuz-eta. Jarraitu beti bezain alai. Musu potolo bat famelixa guztiaren eta, batez be, Maialenen partez.



Zorionak, **XABAT**,  
gaur 4 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **IKER**, mutil haundi, zapatuan 9 urte egingo dozuz-eta. Musu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **AMETZ!**  
Atzo 12 urte jaixo ziñala. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez. Gora Eibar!



Zorionak, **MARTIN**,  
zure 7. urtebetetzian! Ikaragarri maite zaittugu! Aita, Ama eta Libe!



Zorionak, **JULE**,  
martitzenian 3 urte bete zenuz-eta. Asko maite zaittugu, bitxito. Patxo haundi bat.



Zorionak, amama **TIMO!!!**  
Gaur urtiak betetzen dozuz eta edarto ospatuko dogu! Musu potoluak Ekhi, Paule, Jakes eta danon partetik! Maite zaittugu!



Zorionak, **GARI** eta **AITOR**.  
Besarkada potolo bat famelixaren partez.



Zorionak, amatxo **GOIZANE** (otsailaren 22xan) eta **JULEN** (martxuaren 1ian, 3 urte)!! Musu haundi bana famelixaren partez!!

## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

- **26an:** 19:45, 22:30
- **27an:** 20:00

#### "El brindis"

Zuzendaria: Laurent Tirard



### 2 ARETOA

- **26an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **27an:** 17:00, 20:00
- **28an:** 20:30

#### "En un muelle de Normandia"

Zuzendaria: Emmanuel Carrère



### ANTZOKIA

- **26an:** 17:00 (1), 19:45, 22:30
- **27an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **28an:** 20:30 (1 Aretoa)

#### "Coda: Los sonidos..."

Zuzendaria: Slan Heder



### ANTZOKIA

- **26an:** 17:00
- **27an:** 17:00 (EUSKERAZ)

#### "Ainbo. Amazoniako..."

Zuzendaria: Jose Zelada



# Iragarki laburrak


**943 20 09 18**

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai Sallabenten (Ermua). 3 logela, egongela, sukaldia eta kumuna. Pisu altua eta eguzkitsua. Bista ederrak. Dena kanpora begira. Tel. 605711422.

### 1.2. Errentan

- Bi logelako pisua hartuko nuke errentan. Tel. 688862073.
- Matrimoniao batek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. Tel. 667060292.
- Logela alokagai Eibar erdialdean. Tel. 660378181.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2-3 logelakoa. Erreferentzia onak. Tel. 667060292.

## 3. LOKALAK

### 3.2. Errentan

- Wenceslao Orbean bi bizikleta lagatzeko tokia behar dut. Garajea edo trasteroa hartuko nuke errentan. Lekurik baduzu, mesedez kontaktuan jarri nirekin. Tel. 653722817.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643032341.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658273486.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Orduka. Esperientziarekin. Tel. 642855788.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 688862073.

- Emakumea eskaintzen da sukaldia-laguntzaile bezala, etxeak garbiketarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632237151.
- Emakumea eskaintzen da zainketarako eta etxeko lanak egiteko. Orduka ere lan egiteko prest. Autoarekin. Tel. 657794652.
- Emakumea eskaintzen da zerbitzari bezala, garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 671246723.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 74258102.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 747473047.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldia-laguntzaile bezala. Baita asteburuan ere. Tel. 631750397.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 693515502.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 637583745.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsalde eta asteburuetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 624640803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta ziurtagiriarekin. Tel. 680526228.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko garbiketarako egiteko eta sukaldia-laguntzaile bezala. Tel. 612297642.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Interna. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 617610706.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria-laguntzaile titularekin. 10 urteko esperientzia eta erreferentziak. Tel. 642709219.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 600836168.

## 4.2. Langile bila

- Esperientzia duen sukaldaria behar da. Tel. 676081717.
- Esperientzia duen saltzailea behar da merkataritzarako. Tel. 676081717
- Agente komertziala behar dugu Mapfre-n. Erregistratu zaitez: <https://jobs.mapfre.com/job-invite/20597/>
- Ilea-paintzailea behar da Eibarren amatasun baja bat betetzeko. Apiriletik azarora arte. Tel. 697484245 edo laga curriculuma Bidebarrieta 16an..

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

- Ingeles irakaslea behar da Elgoibar-ko akademia batean. Tel. 667261248.
- Eibarko akademiak euskara eta ingeles maila altuko irakaslea behar du LHko partikularrak emateko. Bidalit curriculum: [info@itzamna.eus](mailto:info@itzamna.eus).

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Biniotzko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688624326.
- Bi armairu salgai, hiru atekoak. 2'20ko altuera, 3,060ko zabalera eta 0'45eko sakonera. Prezioa adosteko. Tel. 688661625.

### 6.4.. Denetarik

- 6.4. Gurpil-aulkira egokitu daitekeen motorra behar da. Tel. 690311429. Pilar.





# Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

**Maiatza/Ekaina/Uztaileko DEIALDIA  
AZTERKETAK** Eibar, Durango eta Arrasaten

**MATRIKULAK**  
Martxoaren 1etik 25era

AZTERKETA	DATA	PREZIOA	AZTERKETA	DATA	PREZIOA
STARTETS	ekainak 11 (larunbata)	65€	CAE	ekainak 18 (larunbata)	198€
MOVERS	ekainak 11 (larunbata)	67€	CAE	uztailak 9 (larunbata)	198€
FLYERS	ekainak 11 (larunbata)	70€	CPE	maiatzak 14 (larunbata)	215€
KET (For Schools)	ekainak 11 (larunbata)	95€	PET	maiatzak 20 (ostirala)	100€
PET (For Schools)	ekainak 11 (larunbata)	100€	FCE FS	ekainak 11 (larunbata)	190€
FCE	ekainak 18 (larunbata)	190€	FCE FS	ekainak 25 (larunbata)	190€

## INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

<b>ARRASATE:</b>	Parlance	943 77 06 83	<b>DEBA:</b>	English Square	648 26 82 06
	Idiomaster	943 79 07 84		North Street English	652 44 86 46
<b>BERGARA:</b>	Espolon School of English	943 76 03 53	<b>DURANGO:</b>	San Jose Maristak	94 681 00 58
<b>EIBAR:</b>	Link Idiomas	943 20 39 59	<b>MARKINA:</b>	Lea Artibai Ikastetxea	94 616 90 02
	Target Schools of English	607 83 36 13	<b>FLORRIO:</b>	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
<b>ERMUA:</b>	Akerlei	943 17 66 32	<b>BERRIZ:</b>	Speak up	94 622 52 94
<b>ELGOIBAR:</b>	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	<b>ZUMALTA:</b>	Golden Gate	943 86 50 20
	ILS	943 74 40 40	<b>MUTRIKU:</b>	Gogoz	943 60 43 58
<b>OSATE:</b>	Sounds Great	943 78 20 91			

**Neinor** HOMES

ARRATE HOMES • EIBAR


## Etxebizitzak ERREBAL PLAZAREN ondoan

Gimnasioa  
Gourmet aretoa  
Garaje eta trastelekua



Neinor Store: Bidebarrieta, 6 - Eibar

ERAIKITZEN



900 11 00 22 • [neinorhomes.com](http://neinorhomes.com)

## DESKANTSU DENDA berria Eibarren, ospitale parean.



- Koltxoiak
- Ohe-oinarriak
- Tapizatuak
- Sofak
- Relax besaulkiak (balta motordunak ere)
- Oheko arropa
- Osagarriak.

**Kalitatea, danon eskura.**

Irekiera promozioak, **%20**ko  
deskontuak hainbat produktuetan.



☎ 943 903 002 ☎ 652 407 141  
📱 otaola\_descanso  
Otaola hiribidea, 13 - EIBAR

**OTAOLA**  
DESKANTSU DENDA / TIENDA DE DESCANSO



## Eibarko PROFESIO LIBERALAK



### ABOKATUAK

**CRISTINA BAZ LARRAÑAGA**  
Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

### AHOLKULARITZAK

**GAURVE**  
Fermin Calbeton 13-15  
Tel. 943 20 24 61  
www.gaurve.es  
consultores@gaurve.es

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

**CRISTINA BAZ LARRAÑAGA**  
Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

### EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2  
Tel. 943 20 41 94  
Fax. 943 82 00 06  
egurenyasociados@gmail.com

### GESTILAN

Zezenbide 4  
Tel. 943 20 70 02  
www.gestilan.es  
gestilan@gestilan.es

### M<sup>a</sup> MERCEDES ARIÑO SANZ

Toribio Etxebarria 3, 1 ezk.  
Tel. 943 20 17 03  
Fax. 943 70 20 49  
m\_ari\_sanz@hotmail.com

Hemen zure lekua  
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)